

# GUaiXE.eus



**300 irristalari elkartu ziren Olatzagutian**



**Kirolak >> 13**

**Haize Berriak bandak mezenak behar ditu, CD, DVD eta Enrike Zelaia omentzeko maiatzaren 2ko ikuskizuna aurrera ateratzeko**



**Kultura >> 14**

## EME 8

**GORA EMAKUMEAK!**



**>> 8-9**

PREST  
GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR

**m**  
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**INGENIARITZA GRADUETAKO ATE IREKIAK**

**GOIERRIKO CAMPUSA**

**MARTXOAK 14**  
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

**MAIATZAK 21**  
Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI **902 110 436**  
[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

Arranomendia, 2. ORDIZIA tel. 943 88 00 62 / bulegoa@goierrieskola.org

**Euskara ikasleendako diru-laguntza deialdia egin du Mank-ek**

**>> 5**

**Lakuntza ETBko Herri txiki, infernu handi saioko protagonista**

Astlehenean grabatu zuten eta ostegunean kultur etxean aurkezpen gala dago

**>> 6**

**Karpari buruzko azken erabakia bihar hartuko dute Irurtzunen**

**>> 7**

**Etxarriko basoko plana berritzeko parte hartze prozesua hasita**

Hurrengo hiru asteazkenetan saioak izanen dira, "planarendako oinarri sendoak jartzeko"

**>> 7**

**Altsasuko aisia eskaintzan aldaketak**

**>> 13**

**Euskaraz Bizi Eguna Lakuntzan**

**>> 5**

**Lekuz aldatu gara**  
Inbostia zeharbidea 10 • Altsasu  
948 563 124 • [www.optikasakana.com](http://www.optikasakana.com)

**Sakanaoptika**  
optikanetza • audifonak • kontaktak

**Audifono guztietan**

**%15**  
ERAZKUNTZA

**2x1**  
BETAURREKO GUZTIAN progresibo ta eguzkitako barne

**GAES**  
BANTZULE ZENTRUA

Apirilak 30era arteko eskaintza. Ez dira bateragarriak beste eskaintza batzuekin.



# ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860

MARTXOAN  
%5 EKO  
DESKONTUA



## Gorka

Iepe Gorka, ongi etorriye izen mundubooantaa. Esan zibiek oso txintxu portatzenyazela ire amatxookin eta aitatxookin, bai egunes eta gaubes, oso ongi.



## Maite

Handi honuntza zailte beti, beye Txina fan ber ziñenik ez genekiyeen! ZORIONAK eta muxuak. Lexuri eta Magali.



## Beñat

ZORIONAK zure anaiaren partetik!!



## Ane Ayerdi Perurena

ZORIONAK gure printzesa krokettita!! Ongi pasa zure 3. urtebetetzean. Nork jan behar du Pirritx eta Porrotxen tarta goxoa? Etxekoak.



## Irati Gonzalez Otaegi

ZORIONAK potxola!! 4 urte beteko dituzu!! Oso ongi pasa eta muxu asko. Etxekoak.

## marsuak

# 6-12

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

### Musika

**Orai.** Martxoaren 6an, ostiralean, 23:00etan Altsasuko Arkangoa tabernan.

**DJ Makala.** Martxoaren 7an, larunbatean, 23:00etan Etxarri Aranazko Derry tabernan.

**Trikizio.** Martxoaren 7an, larunbatean, 24:00etan Olatzagutiko Maisuena gaztetxean.

### Dantza

**Dantza emanaldia.** Martxoaren 7an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Altsasuko Musika eta Dantza Eskola.**

### Antzerkia

**DesEncadenArte.** Martxoaren 7an, larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Plataforma Tirante.**

### Pailazoak

**Haurrak bizitzaren opari dira... ala ez? Bat nahi?** Martxoaren 6an, ostiralean, 22:30ean Altsasuko gaztetxean. **Lorena Arangoa.**

**Beti bezala.** Martxoaren 7an, larunbatean, 22:30ean Irurtzongo Iratxo elkartearen. **Lorena Arangoa.**

### Proiektzioak

**Irurtzun Telebista eta berdintasunari buruzko film laburrak.** Martxoaren 6an, ostiralean, 20:00etan Irurtzongo Pikuxar euskal txokoan.

**La paradoja noruega.** Martxoaren 7an, larunbatean, 16:30ean Irurtzongo kultur etxean.

**Emakumea. Film laburren bilduma.** Martxoaren 8an, igandean, 18:00etan Uharte Arakilgo udaletxean.

### Dokumentalak

**Jostunak.** Martxoaren 6an,

ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Gure Esku Dago.**

**Minerita ea Virgen negra.** Martxoaren 8an, igandean, 19:30ean Irurtzongo kultur etxean.

### Zinema

**Violette.** Martxoaren 6an, ostiralean, 21:45ean eta martxoaren 8an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**Las ovejas no pierden el tren.** Martxoaren 6an, ostiralean, 22:00etan eta martxoaren 8an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

**Annie.** Martxoaren 8an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**Into the woods.** Martxoaren 12an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Ikuslearen eguna, 3 euro.



**Iruñera, zinemara.** Martxoaren 10ean, asteartean, 18:00etan Irurtzongo plazatik irtenda.

### Mendi irteerak

**Saioa.** Martxoaren 8an, domeka goizean. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

### Bizikleta irteerak

**Altsasu-Ozeta.** Martxoaren 7an, larunbatean, 10:00etan Altsasuko kultur gune paretik. 71 km. **Zikloturista taldea.**

### Berriozar-Anoz-Plazaola.

Martxoaren 8an, domekan, 7:30ean Burunda txirindulari taldearen bajeratik. 39 km. **Aurretik izena eman (686 457 048).**

### Erakusketak

**Diruaren sexu ezkutua.** Martxoaren 8ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

**Hiri paisaia.** Martxoaren 10etik 30era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Gardenia taldea.**

### Hitzaldiak

**Aitatasun eta amatasun kontzientea.** Martxoaren 7an, larunbatean, 11:00etatik 13:30era Irurtzongo kultur etxean. **Hizlaria: Xabier Odriozola, antropologoa. Izen ematea: 630 574 587.**

**Las mujeres en los comics, una mirada a la actualidad.** Martxoaren 11n, asteazkenean, 18:00etan Irurtzongo liburutegian. **Solasean sexologia-gunea.**

**Berdintasuna kirolean? Zer eta nola?** Martxoaren 12an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Hizlaria: Ainhoa Azurmendi.**

### Literatura

**Dominique. Liburu aurkezpena.** Martxoaren 11n, asteazkenean, 18:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

### Tailerrak

**Autodefentsa feminista.** Martxoaren 7an, larunbatean, 10:00etatik 14:00etara Uharte Arakilgo udaletxean.

**Iman, lore-artearen gorputz mugimendua.** Martxoaren 8an, domekan, 18:00etatik 20:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte

gunean. **Itziar Nazabal, Cristina Diego eta Susana Aiestaran.**

### Baso plan berriaren oinarriak. Basogintza eta abeltzaintza.

Maiatzaren 11n, asteazkenean, 18:00etatik 21:00etara Etxarri Aranazko udaletxean.

### Bestelakoak

**Karpari buruzko bilera irekia.** Martxoaren 7an, larunbatean, 12:00etan Irurtzongo udaletxean.

**Martxoak 8ko afaria.** Martxoaren 7an, larunbatean, 21:30ean Irurtzongo Iratxo elkartearen eta Olatzagutiko Clinker jatetxean. **Aurretik izena eman.**

**Herri txiki, Infernu handi saioko gala.** Martxoaren 12an, ostegunean, 20:00etan Lakuntzako kultur etxean. **ETB.**

### Deialdiak

**Hipotekek kaltetutakoena Plataforma.** Martxoaren 6an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Martxoaren 6an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Sakanako Euskaraz Bizi Eguna.** Martxoaren 7an, larunbatean, 12:30etik aurrera Lakuntzan. **EHE.**

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Martxoaren 8an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Eraiki dezagun bide morea... gogoz!** Martxoaren 8an, domekan, 13:00etan Altsasuko udaletxe aurrean. **Altsasuko mugimendu feminista. Ondoren trikipotea.**

**Emakumeen eskubideen alde.** Martxoaren 8an, domekan, 18:00etan Olatzagutiko San Migel plazan.

**Euskal Herriko Gutun Soziala.** Martxoaren 10ean, asteartean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Eragileendako.**

**Altsasu 2020 amestu. Gure ingurunea.** Martxoaren 11n, asteazkenean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Altsasuko EHBildu.**

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era  
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

107.3 FM  
**beleixe** online  
www.guaixe.eus

Piztu irratia!

**ASTEBURUKO AGENDA**  
**ASTEKO ERREPASOA:**  
albisteak, kirolak,  
Martxoak 8a, Haize Berriak banda,  
Burunda Txirindulari taldearen  
aurkezpena...

Esataria: *Maidier*



# Burunda Txirrindulari Taldea 2015



**Txirrindulariak** heztea. Burunda Taldeko presidente berri Oscar Guerrerok azaldu zuenez, hori da helburua. "Gurea, gainontzeko klubetik desberdina da. Ez gaude emaitza jakin batzuk lortzera beharituak. Gure funtzioa gazteak heztea eta balioak transmititzea da. Emaitza onak lortzen baditugu, primeran, baina badakigu hori ez dela gure helburu nagusia" azaldu zuen larunbatean lortian egindako aurkezpenan. Eskoietatik hasita jubenetaraino, 37 txirrindulari trebatuko dira Burundan. Aurten 6 txirrindularitza proba antolatuko dituzte. Ekitaldian Burundan trebatutako Hodei Mazkarian pista eta ohorezko bazkide izendatu zuten.

Burunda klubak zuzendaritza berria du aurtan. Oscar Guerrero da presidente berria, Ismael Perez, Goyo Chamorro, Migel Mari Unzilla, Jose Antonio Begiristain, Iñaki Lasa, Gorka Mintegi eta Ruben Aramendia lagun dituela. Aurreko zuzendaritzendako esker oneko hitzak izan zituzten.



**HASIBERRIAK**

clubciclistaburunda.com

**ESKOLAK (23).** Promesak: Ekaitz Perez, Ekiñe Aguirre, June Etxeberria eta Maider Ondarra. Hasiberriak: Ion Aterbe, Iker Begiristain, Pablo Senosiain, Iker Gomez, Asier Etxeberria, Mikel Regil, Aitor Barandalla, Mikel Lizarraga eta Oier Aguirre. Kimuak: Julien Guerrero, Ander Villalobos, Mikel Uncilla, Marxel Etxeberria, Oihan Etxeberria eta Ion Chamorro. **Haurralc:** Willy Torres, Iker Mintegi, Ion Ander Borrega eta Unai Villalobos. Babesleak: La Tasca de Don Jose, Katealde eta Cafés San Donato. Entrenatzaileak: Ismael Perez Auzmendi eta Gorka Mintegi Mazorriaga.



**KADETEAK (6).** Josu Jaka, Josu Etxeberria, Ailatz Lasa, Oihan Vinagre, Raul Granados eta Odei Zia. Babesleak: Quesos Albéniz. Entrenatzaileak: Tomas Martínez Viedma.



**JUNIORRAK (8).** Eneko Aramendia, Ariz Irigoien, Jose Alberto Gimenez, Eneko Vilari, Iosu Gabirondo, Alex Unzilla, Asier Etxeberria eta Xabier Maitza. Babesleak: Quesos Albéniz. Entrenatzaileak: Ion Irigoien Fresneda.

**BABESLEAK**





Xabier Reparaz Extramiana

**astekoa**

## Lurra lozorroan

Txikitatik entzun dugu lurra jabetzan izatearen garrantziaz. Arbasoen lurren berri ematen ziguten gure herriko edozein txoko bisitatzean. Zer lantzen zuten bertan, zein bizipen edo tragedia gertatu ziren paraje haietan... Garai bateko ohiturek alfertzat jotzen zituzten beren lurrak goldatzen ez zituztenak.

Soroen zentimetro bakoitza produktiorako bideratu beharra zegoen etekinik emanen bazuen. Gure artean belarrez estalitako lorategiak agertzean, harriduraz begiratzen zituzten herriko zaharrenek. Euren ustez, belarra toki aldapatsu edo antzuetan baino ez baitzen hazten. Gai nontzekoak, belar txarrak.

Gaur egun, ordea, horrenbeste neke eta izerdi sortu zituzten lur haiek belarrez estaliak daude lozorroan. Lurjabe gehienek artzainei errentan emanak dituzte soro izandako belardiak, hauen etekin eskasa ardiek daramate sabelean. Buruan sartu ziguten lurraren jabetzaren ideia hura ahaztu zaigu. Lurrak

zituenak bere gizotasuna haiek lantzen erakusten zuen; egun, berriz, haiek dituenak lurra kontserbatuz erakusten du. Erabili ez arren, saltzeko lotsak baino ez dirau. Antzinako nobleen antzera, jasotakoa handitu baino ezin daitekeela pentsatuz. Saldu inoiz ez.

Agian, berriz ikusiko ditugu

soroak herri osoak elikatzen, noizbait esnatuko dira lozorro luzetik. Jabeek haiek piztean, edo goseak hala behartuta. Espero dezagun ez zaigula ahaztuko nola lantzen ziren lur emankor hauek, lozorroak dirauen arren iraganean izan ziren bezala, gure sostengua izan baitaitezke etorkizunean.

## barrutik kanpora

# Hegoa iparraren beste muturrean

Sakabanaketa eta urruntzea euskal presoek ezarri baino lehen, politika hori bultzatu zuten alderdiek bazekizkiten presoendako eta haien senideendako ekarri behar zituen ondorioak, besteak beste, alderdi horietako militante askok zigor hori beren larruan jasan baitzuten frankismoaren garaian. Orduan eta orain, sakabanaketak helburu politikoa izan du beti; izan ere, jakinaren gainean senideak sufritzen ikusteak norberaren oinazea

bera baino are mingarriagoa izan daitekeela, senideen sufrimenduen bidez presoek amore ematea bilatzen dute.

Joan zen astean, Etxerat Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak batekin bilduzen, Urkullu lehendakaria buru zela. Bilera horretan, hogeita bost urte hauetan euskal presoek urruntzeak haien senideengan izan duen eragina izan zuten hizpide. Jaurlaritzarekin egin duen lehendabiziko bilera horretatik konpromiso batekin

atera da senideen ordezkariak, sakabanaketa amaitu eta senideen sufrimendua aitor dadila hain zuzen ere. Arestian esandakoa kontuan harturik, baldin eta hasieratik senideak sakabanaketa politika horren kaltetu zuzenak izanen lirakeela bazekiten, senideen mina aitortzearekin batera, min hori eragin izanaren erantzukizuna ere bere gain hartu beharko lukete alderdi horiek.

Aste honetan Etxeratak hegoari begira iparrera jo du, Brusela-

ra, Europako parlamentuan eta beste erakunde batzuetan egotara salatu eta babesa bilatzera. Euskal Herriko egoera politikoa gutiz aldatu den honetan, Madrilgo Gobernuak bere horretan jarraitzeko asmoa duela gogorarazi zigun berriz ere joan zen astean bertan. Espainiako Estatuaren makineria juridiko-politikoak sistematikoki urratzen ditu gure senideen eskubideak, eta berdin dio horretarako Europako lege-dia bera urratu behar badu ere,

espetxealdiak luzatzeko azken epaiekin erakutsi digun bezala. Lehendik argi ez bazegoen, hegoa iparraren beste muturrean dago.


**Etxerat**

## hara zer dien

# Nor bere buruarekin zintzoa izatea

Zenbatetan adierazten dugu sentitzen dugunaren kontrakoa? Edo zenbatetan estaltzen dugu sentitzen duguna, pentsatzen duguna? Beste pertsonari ezetza ez emategatik zenbatetan egiten dugu nahi ez duguna? Zenbatetan ez doaz bat sentitzen duguna eta egiten duguna?

Agian besteengandik onartu sentitzeko, agian besteen erantzunari beldur diogulako, gure ingu-

runean "gaizki ikusia" dagoelako, edo gertatzen zaigunaz kontzientziarik ez dugulako... Arrazoi ugari egon daitezke, baina azken finean, gure barrenaren kontra goaz horrelako jarrerak maiz ditugunean.

Nor bere buruarekin zintzoa izateak, sentitu, pentsatu eta egiten dugunaren artean koherentzia bat izatea eskatzen du. Batzuetan, ingurune eta egoera

ezberdinetara moldatu behar dugu, baina horrek ez du esan nahi gure burua baliogabetu behar dugunik. Argi dago, gure beharren eta parte hartzen dugun ingurunearen artean, oreka bat lortu behar dugula, baina gu garena ahaztu gabe.

Nor bere buruarekin zintzo izateak, gure barne esperientzia eta errealitateari uko ez egitea suposatzen du; hau da, sentitu

eta bizitzen duguna, den bezala onartzea. Hau askotan zaila egiten zaigu, gure esperientzia beste modu batera izatea nahiko genukeelako.

Bide honetan, beldurrak ere sor daitezke, batzuetan, gure benekotasunari heldzeak, gustuko ez dugunarekin topo egitea eta egoera askori aurre egitea suposatzen duelako: azken finean, gure barne esperientzia eta errealita-

tearen ardura hartu behar dugulako.

Hala ere, nahiz eta momentu batzuetan zaila izan, gu garenarekin aurrera egiteak, nor bere buruarekin zintzo izateak, ongi zatera eramaten gaitu, gure buruarekiko segurtasuna areagotuz.

**Narrea Iraurgi**
**Guaixe**


**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.net  
**MAKETATZAILEA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano  
**ZUZENTZAILEA:** Garazi Barandalla  
**ARGITARATZAILEA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.net  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**
**Mank**  
 s a k a n a

**BAZKIDEAK**
**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
 ETA KULTURA SAILA  
 Hezkuntza Politikako Salburordetza

**ARAKILDIAK SAGARDOTEGIRA:** Arakilgo Udalak Hernaniko Itsasburu sagardotegira irteera antolatu du apirilaren 11rako. Sagardotegiko menua eta begetarianoa izanen dira aukeran. Izen emateak udaletxean egin daitezke hilaren 25a baino lehen. Erroldatuak ez direnak ere joan daitezke.

# sakanerria >>

## SAKANA

# Lakuntzak hartuko du Sakanan Euskaraz Bizi Eguna

**Bihar, 12:30etik aurrera, Euskal Herrian Euskaraz-ek antolatuta**

Espaloitik jaitziko ez direla eta euskaraz bizi nahi dutela adieraziko dute bihar, atzera ere, makina bat sakandarrek. Euskal Herrian Euskaraz-ek (EHE) antolatutako Sakanako Euskaraz Bizi Egunean izanen da. Eragile euskaltzaleak toki-erakundeetan euskararen presentzia ziurtatu nahian eta herritarren euskararen aldeko kontzientzia pizten lan egiten du. Lakuntzan bihar antolatu duten ibarreko egitarauarekin "euska-

## Euskaraz bizitzeko determinazioa



Horixe azaldu zuten larunbatean makina bat euskaltzalek, sakandarrak barne. Espainia eta Frantziako estatu ordezkariak eta Nafarroako Gobernuak euskarazko politikak garatu nahi duten udalei jarritako oztopoak salatu zituzten. Haiek gainditu eta Euskal Herrian euskaraz biziko garaia aldarrikatu zuten euskaltzaleek.

Euskarazko Gizarte Erakundearen Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbaok estatuaren jardunek euskara "arnasarik gabe" utzi nahi dutela salatu zuen. Baina "euskaldunak ez gara kikilduko" gaineratu zuen. Nafarroari dagokionez, Bilbaok adierazi zuenez, "hizkuntza-politikan egiturazko aldaketak gertatzen badira izanen da Nafarroan benetako aldaketa". Gogora ekarri zuen apirilaren 25ean Kontseiluak aldaketarako gakoak zeintzuk izan beharko liritekeen azalduko duela Iruñeko Anaitasunak.

raz bizitzeko grina" aldarrikatu-ko dute. Aldi berean, apirilaren 18an Otxandion ospatuko den Eus-

karaz Bizi Eguna joateko gonbitea luzatu du eragile euskaltzaleak. Ospakizun horren aurrene-

ko edizioa, 2010eko maiatzaren 2an, Etxarri Aranatzan ospatu zen.

### Egitaraua

**12:30ean** Suziria eta egunaren aurkezpena. Jarraian, Erraldoi eta buruhandiak.  
**14:00etan** Bazkaria.  
**16:00etan** Mus txapelketako finala.  
**17:30ean** Kalejira fanfarrearekin.  
**18:00etatik aurrera** Lakuntzako musikariak herriko tabernetan.



Zure titularrekin osatu azala.

## Zer berri emanen zenuke Guaixe-ko azalean?

**Zure edo zuen gogoko Guaixe-ko azala sortu eta gurera astehenerako bidaltzera gonbidatzen zaitugu**

Martxoaren 13an Guaixe astekariak 500. zenbakia argitaratu du. 500 astetan Sakanari buruzko denetarik albisteak argitaratu ditugu, eta horretan segituko dugu. Sakandarrak Guaixe-ko azalean zein berri ikusi nahiko lukete? Lan taldean galdere hori sortu zen eta gure irakurleei, zuri, proposamena luzatzea erabaki dugu: gogoko dituzun albisteekin sor ezazu zure Guaixe-ko azal ideala.

Boligrafoarekin zirriborratuta, kolorezko margoekin, collagearekin, ordenagailuz... edozein teknika erabili sor ditzakezu azal horiek. Muga bakarra hurkoari zor zaion errespetua. Azal proposamenak astehenerako 9:00etarako bidali behar diguzu gutunak@guaixe.net helbidera. .JPG edo PDF formatuan izan beharko dute, A4 tamaina eta 200ppp-ko erresoluzioarekin gutxienez. Azalaren egile edo egileek izen-abizenak gaineratu beharko dituzte. Jasotako azal onenak heldu den asteko Guaixe-ko zenbakian argitaratuko dira. Azal guztiak www.guaixe.eus-en ikusgai izanen dira.

## Arbizu

### Udala, Irrizale

**Irria, haurrendako euskarazko argitalpena zabaltzen laguntzeagatik jaso du saria**

Joxe Mari Agirretxe "Porrotx"-ek azaldu duenez, Irrien Lagunak Kluba "euskaratik, geure baliotatik eta auzolanetik" sortu zen, haurrendako argitalpenak eta produktuek eskaintzeko asmoz. Besteak beste Irria aldizkaria ekoizten du eta klubak 5.000 bazkide dauzka. Anabel Arraiza lakuntzara da Irrien Lagunak klubeko arduradunetako bat. Haurrendako argitalpen hau zabaltzen lagundu duten 25 talde eta entitateei Irrizalesaria eman zieten ostiralean Albaola itsas faktorian, Pasaian. Tartean Arbizuko Udalak jaso zuen Irrizalesaria, eta udal ordezkariak Bizipoza auzolan liburua hartu zuten opari.

# Mank-ek euskara ikasleendako diru-laguntza onartu du

**Joan den urteko gariletik aurtengo garagarria akabera bitartean euskalduntze edo alfabetatze ikasleek egin ditzakete eskaerak**

Euskara ikasteko ikastaro estentsibo, trinko, barnetegi edo informatika bidezko ikastaroetan izena eman duten sakandarrek diru-laguntza eskatzeko aukera dute. Sakanako Mankomunitateak 25.000 euro bideratuko ditu horretarako.

Interesatuak euren eskaerak Mank-en Lakuntzako egoitzan aurkeztu beharko dituzte, garagartzaroren 1etik garilaren 30era bitartean. Eskabidearekin batera, nortasun agiriaren kopia, erroldatze ziurtagiria eta euskaltegiak eginitako asistentziaren ziurtagiria (%80 gutxienez) eta matrikularen ordainagiria aurkeztu beharko dituzte. Eskatzaileek, hori bai, Mank-ekin zerga betebeharrak ordainduta izan behar dituzte.

Bestalde, Mank-ek helduak euskalduntzen ari diren Sakanako euskaltegiei diru-laguntza emateko deialdia egin du. Horretara 25.000 euro bideratuko ditu. Hiru hileka eskabideak egiteko aukera izanen dute, azken hileko azken egunaren aurretik beti ere. Eskabide osatuarekin batera, emandako ikastaro bakoitzaren ikasketak

maila, irakaslea, ikasle kopurua, egutegia eta ordutegia zehaztu beharko dira. Ikastaro bakoitzaren balantze ekonomikoa, ikasleen zerrenda eta beste erakundeetan eskatutako diru-laguntza guztien aitorpena ere.

### Euskalgintzarendako deialdia

Mank-ek Sakanako euskalgintzari euskara sustatzeko eta erabilera areagotzeko jardueretan laguntzeko diru-laguntza deialdia ere egin dio. Euskara taldeek eta eus-

kararen normalizazioa helburu duten erakundeek, Sakanakoak edo ibarrean jarduten dutenak, aurkeztu ditzakete eskaerak. Mank-ek 5.000 euro bideratu ditu. Eskabideak Mank-eko Lakuntzako egoitzan hilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira. Eskatzaileek eskabide osatuarekin batera, IFKaren kopia, egin nahi den jardueraren plangintza xehatua, haren sarreraren eta gastuen aurrekontua eta beste erakundeei egingadako diru-laguntza eskaeren aitorpena aurkeztu beharko dute.



Irurtzango lip-duba. ARTXIBOA

**Ezkaba S.L.**  
Suteen prebentzio sistemak

**INSTALAZIO ETA MANTENTZE-LANAK**

- Su-itxalgailuak
- Biesak
- Sute-zentralak...

**ESKAITZA BEREZIAK**

- Auzokideen komunitateak
- Ostalaritza
- Abeltegiak

Iruñea  
948 382 271 - Maturak 671 619 018  
www.prevencionezkaba.com

**nerea cenoz**  
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatu (Nafarroako Unibersitatea)

**Pisua kontrolatzeko dietak:**

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

**Patologia ezberdinetarako dietak**

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

info@nereacnoz.com  
nereacnoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan  
Estafeta 16, atzea · Lakuntza  
(Bostekoa masaje zentroan)

## » Lakuntza

## Herri txiki, infernu handi

**ETBk Lakuntzan saioa grabatu du Herri txiki, infernu handi programarako. Ostegunean, martxoaren 12an, gala egingen dute Lakuntzako zinean eta saioa martxoaren 29an emango du ETB1ek**

ETB1ek igandetan eskaintzen du Herri txiki, infernu handi saioa. Euskal Herriko herri bat gaia hartuta, herri horretako pertsonen elkarrizketak egiten dizkiete. Esateko zerbait duten pertsonak hartzen dira kontuan, edo pasadizo

## Emisioa

Lakuntzako saioa martxoaren 29an eskainiko du ETB1ek, 21:30ean.

xelebreak dituztenak, edo, besterik gabe, herri horretan kuttunak edo bereziak direnak. Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadi beraiekin biltzen dira, herriaz eta euren bizipenez aritzeko.

## Ostegunean gala

Bada, Lakuntza izango da Herri txiki, infernu handi saioko protagonistetako bat. Gurrutxaga eta Pagadi buru zirela, astelehenean izan ziren saioko elkarrizketak grabatzen. Hamaika elkarrizketa egin zituzten eta pozik geratu dira grabatutakoarekin. Orain, elkarrizketak prestatu eta lakuntzarrei erakutsiko dizkiete, martxoaren 12an, ostegunean, 20:00etan Lakuntzako zinean egingo duten gala berezian. Gala horretan Sebastian Lizasok



Mikel Pagadizabal eta Zuhaitz Gurrutxaga Lakuntzan izan ziren astelehenean.

bertsoak jarriko ditu eta Zuhaitz Gurrutxagak eta Mikel Pagadik Lakuntzan bizitakoarekin monolo-

go dibertigarriak egingo dituzte, eurek elkarrizketatutakoak aurrean direla. Ekitaldia irekia da.

## SAKANA

## 42.432 euro eskola-kontzentrazioak dauden udalendako

Irurtzongo, Etxarri Aranazko eta Olatzagutiko eskola publikoetan herriko ikasleez aparte aldamenetako herrietakoak ere hartzen dituzte. Guztira Haur eta Lehen Hezkuntzako 282 ikasle dira. Aipatu hiru udalok herriko ikastetxera joaten diren ikasle guztien garraio eta jantokiko gastuak ordaintzen dituzte. Nafarroako Gobernuak ikasle kopuru hori hartzeak dakartzen garraio eta jantokiko aparteko gastuak konpentsatzeko diru laguntza eman die, 42.432 euro.

Diru-laguntzak	Beste herrietako ikasleak	Diru
Udala		
Irurtzun	204	30.696
Etxarri	73	10.984
Olatzi	5	752
<b>Guztira</b>	<b>282</b>	<b>42.432</b>

## SAKANA

## Euriteek errepideetan sortutako kalteak konpontzeko 57.000 euro

Otsailan izan diren euriteek Sakanako errepide sarean sortu dituzten kalteak konpontzeko Nafarroako Gobernuak 56.966,21 euro bideratu ditu. Hiru portutan eta Irurtzun eta Izurdiaga lotzen dituen errepidean ari dira lan

nagusi horiek egiten. Bestalde, Irurtzongo errepide mantentze zentroak bere barruti guztian egindako inausketak eta asfaltoko zorua konpontzera 57.240 euro eta 45.613 euro bideratu ditu hurrenez hurren.



Kalteak konpontzeko diru			
Non	Zer	Egin beharreko lana	Diru aurreikuspena
Izurdiaga-Irurtzun	Herrestatzea	Finkatzea	5.082,95
Lizarragako portua	Errepidea erortzea	Harri lubeta+finkatzea	29.572,36
Lizarrustiko portua	Luizia	Ezponda finkatzea	2.497,87
Urbasako portua	Errepidea erortzea	Ezponda finkatu eta zorua egin	19.813,03
<b>Guztira</b>			<b>56.966,21</b>

## » Irañeta

## Txerriak Korrika-ren aurretik

Larunbatean txerriari emanak ibili ziren irintarrak. Korrika-ko kilometro bat erosteko antolatutako jardueren ardatza txerria izan baitzen. Goizean hildako txerria zatikatu eta txistorrak eta odolkiak egitera elkartu ziren hainbat herritar. Gosaria ere izan zen. Gauean, berriz, 45 bat izan ziren Txapel-Azpi elkartearen afaltzera giro ederrean elkartu zirenak.



## » Altsasu



## Korrika. Altsasun, Edinburgon

Martxoaren 14an Edinburgon Korrika antolatuko dute. Iragartzeko bideoa prestatu dute, Edinburgoko Korrikan parte-hartzera animatuz. Xabier Martinez Leoz altsasuarra da protagonistetako bat. *Trainspotting* filmeko Edinburgoko ihesaldiko eszenan oinarritu dira: [www.youtube.com/watch?v=\\_NzsMDOaz0&feature=youtu.be](http://www.youtube.com/watch?v=_NzsMDOaz0&feature=youtu.be)

## » Zuhatzu

## Elkartea berritzeko asmoa

Zuhatzuko Kontzejuak aurtan 10.220 euroko aurrekontua izanen du. Kontzeju-buru Zuriñe Ormaetxea Padi-llak esan digunez, elkarte zahar berritu nahi dute. "Herritarren topaleku izan dadila eta etorkizunean hain jarduerak egiteko aukera eman dezagula". Lan hori egin ahal izateko Arakilgo Udalak emandako diru-laguntza erabiliko du. Gainera, hark kontratatutako langileak ere ariko liriteke lan hori egiten. Ormaetxeak gaineratu duenez, bestelako lan txikiak ere egiteko asmoa badute kontzejuan: frontoiko paretetan konponketa txikiak edo argiteria jartzea beharrezko jotzen duten zenbait puntutan.



## » Olatzagutia

## Troskerako errekek herria hartu zuen

Pasa den ostegunean Urbasatik jaisten den Troskerako errekek gainezka egin eta Olatzagutiaren zati handi bat urpean utzi zuen. Troskerako errekek lur azpitik zeharkatzen du herria Arakil ibaian bukatu aurretik. Errekak berak erarritako adarrek eta abarrek sortutako tapoiak ura lurpeko bidera beharrezko lur gainera bideratu zuen. 6:30etik 8:30era bitartean ura Olatzagutiko kaleez nagusitu zen. Udaleko langileak hainbat etxe, biltegi eta bajeretatik ura ateratzen aritu ziren. Haietan urak parketeetan, pladurren eta abarrean kalteak sortu

zitu. Ondoren udaleko langileak herria garbitzen aritu ziren, errekek urak hainbat kale bereganatu baitzuten.

Troskerako erreka Urbasako portutik behera jaisten da. Olatzagutira iritsita, Arronga plaza ondoran, Ingurabide kalean, sartzen da lurpean eta ibairatu aurretik Errekalde, Larratxota, Nagusia, Pelotalekupe, Sacti Spiritu eta San Francisco kaleak lurpetik zeharkatzen ditu. Bestalde, Erburua aldetik jaisten den errekek ere lurpetik zeharkatzen du herria, Troskerakoarekin San Francisco kale azpian bat egin eta Arakil ibaian bukatu arte.



Kale Nagusia urpean. UTZITAKOAK

## » Altsasu

## Lur trukea onartua

Nafarroako Gobernuak azken bilkuran Altsasuko Udalaren eta herritar baten arteko lur trukea onartu du. Udalak Patxi Amillanori Murgilarte dermioan 4.000 metro karratuko lursaila emanen dio eta haren-gandik trukean Kaskaldia dermioan 13.981 metro karratuko lursaila eskuratuko du. Gobernuaren arabera "udalak aparteko interesa duen eremu batean herri lurren eremua handitu egiten du". Garazi Urrestarazu Zubizarreta alkateak gaineratu digu egoera bat erregularizatzea eta lanpostu batzuk bermatzea lortzen dela horrela.



## » Izurdiaga

## Aurten, lan txikiak

Izurdiagako Kontzejuak aurten 30.520 euroko aurrekontua kudeatuko du. Kontzeju buru Jose Luis Garcia Urbistondok jakinarazi digunez, aurten ez da aparteko lanik egingen. Eta egiten dena Arakilgo Udalak emandako dirulaguntzarekin eta hark kontratatutako langileekin egingen da. Garciak azaldu digunez, aurretik egindako inbertsioek ez dute gehiagorako aukerarik uzten.

Garciak gogora ekarri du San Juan kaleko aurri egoeran zegoen etxearena. Kontzejuak eta herri-tar batek erdibana zuten jabetza. Eraikinaren egoera txarragatik Arakilgo Udalak esku hartzeko eskatu zien. Azkenean, Kontzejuak beste erdia erosi, eraikina bota eta auzokoak hezetan ar-

zoak ez izateko urteko aurrekontua adina diru gastatu zuela. Kontzeju-etxean teilatua eta argiteria berri eta jardueretarako gela egokitu zela ere gogora ekarri du. Kontzejuak, gaur egun, horiei buelta ematen ari da.

## Espaloia

Aurten ez bada, heldu den urtean Geltoki eta San Juan auzoak lotzen dituen errepidean oinezkoendako espaloia izanen da. Egungo trenbide pasagunean hasi eta forjarien etxetik kontzeju-etxeraino iritsiko dena. Espaloi hori trenbide pasagunea kentzeko lanekin batera egingen du Nafarroako Gobernuak. Lanak bukatzean Izurdiagako bi auzoak batzen dituen kale hori udalaren jabetza izatera pasako da.



Pareko etxeetatik kontzeju-etxera espaloia egingen da.

## » Irurtzun



Barazki Gunean festetan, bazkariaren ondoren, egindako ekitaldia. ARTXIBOA

## Karpari buruzko azken erabakia, larunbatean

Bihar, 12:00etan, udaletxean batzar irekia egingen da

Irurtzundarrek aurrekontu parte-hartzaileen prozesuaren bidez udalak karpa bat eros dezala erabaki dute. Aukeraketa horrek berekin zekarren irurtzundarrek karparen kokapena eta erabilera funtzionamendua zehaztu beharra. Pasa den larunbatean 13 irurtzundar elkartu ziren, udal ordezkariak tartean zirela. Haiek karpren inguruan esku-

ratutako informazioa eman zieten.

Iritziak trukatu ondoren, elkar-tu ziren gehienek karpa itxiaren aldeko jarrera azaldu zuten. Karparen kokapenari dagokionez, gehienak Barazki Gune plazan jartzearen alde azaldu ziren. Hala ere, kokapen horrek zalantza teknikoak sortu zizkiten: halako lekuan karpa nola moldatuko den, eguraldiaren eragina eta beste. Udaleko ordezkariak teknikarie-

kin zalantza horiek argitzeko konpromisoa hartu dute.

Udal ordezkariak jasotzen dituzten azalpenak larunbat eguerdian udaletxean egingen den bilera irekian emanen dituzte. Irurtzundar Udalak bando bidez herri-tarrak bilkuran parte hartzera deitu ditu. Ahal dela, bilkura horretan erabakiko da zein karpa erosi, non kokatu, nola kudeatu eta zein funtzionamendu izanen duen.

## » Etxarri Aranatz

## Hasi da baso plana berritzeko parte-hartze prozesua

Herenegun 20 bat etxarriar elkartu ziren udaletxean. Bileran horrekin Etxarri Aranatzko Udalak baso plana berritzeko parte hartze prozesuari hasiera eman zion. Prozesuak hilabete iraunen du eta guztia dinamizatzen Edurne Gerendiain (Garrapo) eta Igor Erbiti (Lur Geroa) ari dira.

Erbitik azaldu digunez, udalaren asmoa da "mendi antolakuntza plan integratu berri baten oinarri sendoak ezartzera, konponbide egingarri eta iraunkorra lortzeko". Dinamizatzaileak esan digunez, plan integratua "ezin da baso ustiaketa eta kudeaketara, edo espezie kontserbaziora mugatu. Inguruko gizartea eta ekonomia garatzeko plana behar du".

Martxan jarritako prozesuarekin, udalaren eta Etxarriko hainbat gizarte eta ekonomia eragilearen arteko plangintza eta kudeaketa hitzartzea lortu nahi da. Adostutako ondorioak Gobernuari jakinaraziko dizkiote eta heldu den legegintzaldian itxiko da plana. Nafarroako Gobernuak oniritzia eman ondoren, bi administrazioek plana aurrera ateratzeko konpromisoa hartu beharko dute.

## Saioen dinamika

Hurrengo bi saioetan basoa eta gai zehatzen gainean ariko dira tailleretan. Haiei buruz dauden aukerak, arazoak, helburuak, neurriak eta ideiak azaleratu nahiko dituzte. Matxoaren 25eko azken saioan



Lehen bileran egindakoa eta egitekoa azaldu zen. Informazio gehiago nahi duenak: igor@lurgeroa.com. UTZITAKOA

ekarpen guztien laburpena egingen da. Aldi berean, atzera bota diren ekarpenen laburpena eta zergatia emanen da. Parte hartzearen ezagarraren laburpenarekin batera parte-hartzaileek egindako ebaluaketak ere azalduko dira. Parte hartze prozesua hilabete barru despedituko da Etxarriko hariztira egindako bisita gidatu batekin. Ardura-dunek horrela eman nahi dizkiote eskerrak parte-hartzaileei.

Lehen saioan udaleko ordezkariak parte-hartzaileei helburuak azaldu eta plana osatzeko eman beharreko urratsak azaldu zituzten. Helburua herriko basoen plangintza integratua egitea denez, basoan garatu diren edo garatzeko asmoa dagoen proiektuen berri emanez hasi zen parte hartze prozesua. Hala, plan berriaren guztien ekintza programatuak jasotzeko.

Basogintzarekin lotuta: aurre-

ko baso plana eta Sakanan tokiko biomasa erabiltzeko bideragarritasun ikerketa. Abeltzaintza eta bioaniztasunarekin lotuta: abereak basoan egoteko proba pilotua, igelendako putzuak, Aralar kon-

tserbazio bereziko eremua, ehiza plana eta Bechstein inberxaguei buruko ikerketa. Turismoarekin lotuta: haritz zaharren eta trikuharrien ibilbideak, Enecco parkea, toponimia, San Juan Baleon-

tzia eta toponimoen ikerketa. Azkenik, inguruko gizartea eta ekonomia garatzeko proiektua, Sakanako Plan Estrategikoa, ere aipatu zuten.

## Egitaraua

- » Martxoak 11, asteazkena 18:00etatik 21:00etara **Basogintza eta abeltzaintza** tailerra.
- » Martxoak 18, asteazkena 18:00etatik 21:00etara Bioaniztasuna, turismoa eta inguruko gizartea eta ekonomia garatzeko beste proiektuen tailerra.
- » Martxoak 25, asteazkena 18:00etatik 20:00etara Parte hartze prozesua ixteko saioa.
- » Apirilak 11, larunbata 11:00etatik 13:00etara Parte hartze prozesuaren harrera publikoa.

**PPSOE,**  
**Euskal**  
**Telebista**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**  
**Berria erosi taldea**

**LARRAZA**  
ADMINISTRACIÓN DE FINCAS  
**Jose Larraza Legarra**  
Etxebizitzen administratzailea  
Kolegiatu zenbakia: 378  
Bizilagunen komunitateak  
Etxebizitzen administrazioa  
Etxaburua kalea, 1 beheko solairua  
31013 Berriozar  
Telf.: 948 065 570 Faxa: 948 063 634  
Jose.larraza@gmail.com

**JUANLUZENE**  
**SAGARDOTEGIA**  
urtariletik maiatzera  
tel. 948 604 571  
680 652 183  
**ODERITZ**

## SAKANA



Lakuntzako kultur etxea bete zuen Gure Esku Dagok.

## Jostunak ehuntzen hasi dira

**Sakanako Gure Esku Dago herriz herri dinamika indartzen hasi da. Jostunak dokumentalaren emanaldiak iragarri dituzte. Gaur, 19:00etan, Altsasun**

Lakuntzako kultur etxena 120 sakandar elkartu ziren larunbatean. Sakanako Gure Esku Dago taldearen aurkezpenarako balio izan zuen *Jostunak* dokumentalaren aurkezpenak. Aldi berean, garagartzaroren 20rako hiriburuetan deitutako ekitaldien berri eman zuten. Ezberdinen arteko elkarlanean sakontzen, konfiantzak eremuak sortuz, topalekuak ehuntzen ariko dira bitartean dinamika kidea herriz herri. Azken finean, erabakitze eskubidearen alde herritarrek hartutako jarraerak sustatuz.

Herrietan sortutako Gure Esku Dago dinamika taldeak tarteka elkartu eta ibarreko koordinazio bilerak egiten dituzte. Herri guztietara iritsi, dinamika bera indartu eta ideiak trukatzeko gunea bihurtu da Sakanako koordinazio taldea. Ibar guztia hartuko dituzten ekimenak ere landuko dituzte iragarri dute. Hala, Lakuntzako emanaldiaren ondoren *Jostunak* dokumentalaren herriz herriko aurkezpen egutegia osatu dute. Hurrengo emanaldia, gaur izanen da Altsasun. 19:00etan Iortia kultur gunera joaten direnak, dantzarien eskutik *Gure Esku Dago* kantaren koreografiaren dantza ikusiko dute lehenik, eta dokumentala ondoren.



## Xabierraldi garaia

Iruña eta Tuterako Artzapezpikutzak antolatuta, makina bat erromesek Xabierko Frantziskoren jaioterrira erromesaldia egingen dute asteburuan. 75 urtez elkarturik bidean leloa du aurtien Xabierraldia, platinozko ezteiak bete baititu. Aurtien xabierraldia jubileu urtea ere bada. Erromesek kredentziala jasotzeko aukera izanen dute.

Larunbatean hainbat sakandarrek Zangozako bidea hartuko dute, han loegin eta igande goizean, 8:00etan, Xabierrako gurutze bidean parte hartuko. Gazteluko zelaian meza 10:00etan izanen da. Bigarren Xabierraldia heldu den larunbatean izanen da. Gurutze bidea 15:00etan abiatuko da Zangozatik eta meza 17:00etan izanen da. Xabierraldiak herenegun hasi eta 12an bukatuko den graziaren bederatzirrenaren barruan daude. Hala, asteartean Mendialdetik Xabierrako erromesaldia antolatu da eta elizkizun elebiduna egingen da.



Xabierko gaztelua beteko da atzera.

## SAKANA

## Gutun Soziala lantzen

Otsailaren 24an hainbat sakanadar Altsasun elkartu ziren



Euskal Herriko Gutun Soziala zertan den eta aurrera begira dauden erronkez aritzeko. Han jasotako edukiak Sakanangazartzeratzeko eta gobernuek bere egiteko bideak aztertu zituzten. Azken horri lotuta martxoaren 14an aldaketa sozialaren alde Iruñean deituta dagoen manifestazioa prestatzen hasi ziren. Gai horien lanketarekin segituko dute ibarreko eragileek asteartean, 19:00etan, Altsasun egingen den batzarrean.

## Altsasu

## EHBilduk topaketa irekiak antolatu ditu

**Aurrenekoa asteazkenean izanen da, 19:00etan, Gure Etxea eraikinean. Ingurumena, energia, etxebizitza, hirigintza eta birziklatzea aztertuko dituzte. 13an eta 14an izanen dira hurrengoak**

Koalizioak hiru topaketa ireki antolatu ditu heldu den asterako. Galdara bati eman nahi diote erantzuna: Zer nolako Altsasu nahi dugu 2020rako? EHBilduk hurrengo sei urteetan 13 esparrutan eman beharreko urratsen inguruan hausnarketa irekia egin nahi du. Horregatik, altsasuarrak haietan parte hartzea deitu ditu.

Altsasuko EHBildutik jakinarazi dutenez, parte-hartzea sustatzeko eta ideia ugari sorrarazteko metodologia berritzaileak erabiliko dituzte. Gaietako bakoitzean diagnostikoa eta aurrera begirako ekimen proposamenak landuko dira. Eztabaida errazteko, gai bakoitzeko oinarriko materiala <http://altsasu.ehbildu.eus/altsasu2020> web orrian eskuragai jarri dute.

## SAKANA

## Relatos de Plomo bilduma osatu da

**Ekimen horrekin, Nafarroako Gobernuak herrialdean "50 urtez terrorismoa jasan duten pertsona guztien memoria eta kontaketa berreskuratu" nahi izan du**

Nafarroako Gobernuak Relatos de Plomo proiektuko hirugarren eta azken liburukia argitaratu du. *Relatos de Plomo. Historia del terrorismo en Navarra, la sociedad contra ETA* izenburua du bilduma ixten duen argitalpenak. Bost kapituluatan "enpresaburuei eta profesionaleri egindako estortsioa, kale-terrorismoa edo kale-borroka, kargu publikoek jasandako bortxa eta mehatxua, segurtasun-indarrek egindako lana, eta gizarteak elkarretaratze eta manifestazioen bidez adierazitako gaitzespena" azaltzen da. Aurreko bietan "ETAren terrorismoak eragindako kalteak" jaso zituzten (1960-1986 eta 1987-2011).

## M8

## Uharte Arakil

## Udalak "parekidetasunaren lanketan sakontzeko" konpromisoa hartu du



Uhartearrak plazan. UTZITAKOIA

Uharte Arakilgo Udalak pasa den osteguneko bilkuran Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta adierazpen instituzionala onartu zuen. Udalak "emakume eta gizon askeen Euskal Herriaren alde lan egiten jarraitzeko" konpromisoa hartu zuen. Horretarako, Uharte Arakilen "biolentziarik gabeko bizitza bizitzeko eremuak izateko bitartekoak" jarriko ditu. Aldi berean, udalak emakume elkarte eta mugimendu feministarekin elkarlana bultzatuko du. Azkenik, "emakumeek bizitzeko merezi duten bizitza duinak izateko politikak" garatuko ditu. Aldi berean, udalak Martxoaren 8an Uharte Arakilen eta Sakanan mugimendu feministak deituriko mobilizazio eta jarduerekin bat egiten du. Uharte Arakilgo Udalak onartutako adierazpenean merkatuek sortutako krisiak "urteetako borrokaren bitartez irabazitako eskubideak galtzeko arriskuan" jarri dituela salatu du. Ekonomiaren oinarrian emakumeek egindako etxeko lanak eta zaintzak daudela eta sistema kapitalistak haiek "ezkutuan utzi eta aitortpenik onartu gabe, gutxietsi" egiten dituela nabarmendu dute udalean. Emakumeek lan merkatuan duten tokia "marjinala" dela eta esplotazio bikoitza pairatzen dutela adierazi dute Uharte Arakilgo Udalean. "Emakumeek bizitza duina izateko sistema kapitalista eta patriarkatu gaitzitu beharra inoiz baino agerriago dago". Udaletik "patriarkatuaren zutabea den familia-eredu tradizionala, heteropatriarkala, indartzeko neurriez" gaitzitu dute, indarkeria matxista salatzearekin batera.

## Egitaraua

**>> Martxoak 7, larunbata 10:00etatik 14:00etara** Autodefentsa feminista tailerra. Udaletxean.

**>> Martxoak 8, igandea 18:00etan** Emakumea. Film laburren bilduma. Udaletxean.

## Altsasu

## Aldaketak bateragarritasunerako aisialdi programetan

**Haurren guraso edo tutoreek euren errentaren arabera tasa ordaindu beharko dute**

**Aste Santuko eskaintzarako izen ematea astelehenean zabaldu eta ostiralean itxiko da. 012 telefonora hots eginez edo [www.alsasua.net/eu](http://www.alsasua.net/eu) web bidez egin daiteke**

Aste Santuko oporrak direla eta ikasleek jai izaten dute. Lana eta familia bizitza bateratu ezin duten pertsonen zuzendutako programak martxan ditu Altsasuko Udalak. Aurtengo eskaintza apirilaren 7, 8, 9 eta 10erako egin du udalak. 3 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako zerbitzua ludotekan izanen da 8:30etik 13:30era edo 11:00etatik 13:30era. Ezgaitasuna duten gazteei zuzendutako zerbitzua, berriz, Intxostiapunta gazte gunean izanen da, 17:00etatik 20:00etara.

Joxepi Markinez ludotekariak jakinarazi digunez, aurtien bi berrikuntza izanen dira aisialdi programa horietan. Alde batetik, programen izena aldatu egin dute. Dagoeneko ez dira Bateragarria, Dibertigarria izanen. Haurrei zuzendutakoak Aisialdi Blai izena hartu du eta behar bereziak dituzten gazteei zuzendutakoak, berriz, Gu Geu Gazte.



Aisialdi programan txikiak primeran pasatzeko aukera dute. ARTXIBOA

## Hobariak

Bestetik, ordaindu beharreko kuota familia unitatearen errentaren arabera ezarri da. Hala, 4.000 euro baino gutxiago errenta dutenei %40ko hobaria izanen dute; 7.500 euroko errenta izatera iristen ez direnen kasuan hobaria %20koa izanen da. 7.500 eta 15.000 euro arteko errenta dutenek ez dute hobaririk izanen eta 15.000 eurotik gorako errentadunek, azkenik, %25eko igoera izanen dute. Programan onartutako direnek hilarren 18tik 24rako astean aurkeztu beharko dute errenta aitortpena udaletxean. Bestela, azken tarifa ezarriko zaie.

Horiek kontuan izanik, Aisialdi Blai programako ordutegi luzean izena eman nahi dutenek haurreko 7,8, 10,4, 13 edo 16,25 euro ordaindu beharko dituzte. Ordutegi murriztuarengatik 3,9, 5,2, 6,5 eta 8,13 ordaindu beharko dute. Gu Geu Gazte programako tarifak Aisialdi Blai programako ordutegi luzeko berak dira.

## Itxaron zerrendara

**Han sartuko dituzte programa batean edo besteetan izena ematen dutenak.**



## M8: Emakumeen Nazioarteko Eguna

&gt;&gt; Irurtzun

## Emakumeen partida ez da 22an bukatu

**XXII. Emakumeari Buruzko Jardunaldiak martxan dira. Ikus-entzunezkoek egitarauaren ardatza osatzen dute**

Sexu indarkeria eta emakumeen hilketak gaitzesteko eta prebentzioaren aldeko aldarrikapena egitera joan ziren astelehenean hainbat irurtzundar. Gaztelu plazan egindako Astelehen Lilak kontzentrazioan parte hartuz abiarazi zuten Emakumeari Buruzko Jardunaldien 22. edizioa, martxoaren 8aren inguruan ardatzuta.

Emakumeen Taldeak Irurtzungo Kultur Kontseiluarekin batera antolatu duen egitaraua hilaren 20ra arte luzatuko da. Ikus-entzunezkoek aparteko pisua dute aurtengo jardunaldietan. Asteburu honetan, esaterako, egunero emanaldiren bat iza-



Irurtzundar guztiei zuzenduta dago jardunaldietako egitaraua. ARTXIBOA

nen da. Bihar, gainera, herri afarian makina bat pertsona elkartuko dira. Ondoren, Lorena Arangoak kafe hizketaldia girotuko du.

Iruñera, zinemara, urtero egiten den irteera edo komikietan emakumezkoek duten tokiaz hitzaldia ere iragarri da.

## Egitaraua

- >> **Martxoak 6, ostirala**  
**20:00etan** Irurtzun Telebista eta berdintasunari buruzko film laburrak, Pikuxar euskal txokoan. Sarien zozketa egingen da.
- >> **Martxoak 7, larunbata**  
**16:30ean** La paradoja noruega. Proiekzioa eta kafe-hizketaldia.  
**21:30ean** Afaria, Iratxo elkartearen. Lorea Arangoak kafe hizketaldia girotuko du, Beti bezala.
- >> **Martxoak 8, igandea**  
**19:30ean** Minerita eta Virgen negra, kultur etxean (dokumental laburrak).

- >> **Martxoak 10, asteartea**  
**18:00etan** Iruñera Zinemara joateko hitzordua plazan.
- >> **Martxoak 11, asteazkena**  
**18:00etan** Las mujeres en los comics, una mirada a la actualidad. Liburutegian.
- >> **Martxoak 13-15**  
La pachanga de los amigos. Irurtzungo antzerki tailerra.
- >> **Martxoak 20, ostirala**  
**17:30etik 19:30era** Aurreiritzirik ez, mesedez. Maitasun erromantikoari buruzko tailerra. Gazte-txokoan.

Aurreko urteetan bezala, Irurtzungo antzerki tailerrak bere azken muntaia aurkeztuko du jardunaldien barruan. *La pachanda de los amigos* Angel Saguesen zuzendaritzapean mar-

txoaren 13tik 15era ikusgai izanen da. Jardunaldia Gazte Txokoan amodio erromantikoari buruz Alicia Pano berdintasun teknikariak gidatutako tailerra-ekin despedituko da.

&gt;&gt; Altsasu

## Udalak murrizketak genero berdintasunerako traba direla salatzen du

**Altsasuko Udalak, "austeritate arrazoiak direla eta, hamarkadetan lortutako aurrerapenak arriskuan" ikusten ditu, "berdintasunaren aldeko politika publikoak bertan behera gelditu daitezke"**

Europako murrizketa politikak sexuen arteko ezberdintasunak areagotzen ari direla eta, Altsasuko Udalak emakumeen pobrezia eta bazterkeria handiagoan eragina izanen dutela nabarmendu du. Toki erakundeak "emakumeak, ekonomia, kultura eta gizarte-erlortan ahaldundurik, gizarte-eragile estrategiko" gisa nahi ditu, "aldaketa sakonak izaten ari den gizarte honen erroka berriei aurre egin diezaieten". Erakundeetan eta gizartean, arlo guztietan, genero harremanak kontuan hartzen dituen begirada berri bat.

Berdintasuna errealitate bihurtzeko konpromisoa bere egin du udalak. Horretarako, Altsasuko Uda-

lak, gutxieneko baldintzak dituen berdintasun politika publikoa ere zehaztu du: borondate politikoa, berariazko erakundeak eta politikak gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko, koordinazio departamentuen zein instituzioen artean, emakumeen parte-hartzea erabakiak hartzeko prozesuetan, sentsibilizazioa eta prestakuntza genero-gaietan, diru- eta giza-baliabideak, eta datuak zein estatistikak sexuen arabera banaturik.

**Ezberdintasunak segida**

Martxoaren 8ko adierazpen instituzionalean Altsasuko Udalak aitortzen du joan den mendeko azken urteetan berdintasuna agenda publikoan ezartzea lortuzela. Ondorioz, "aldatu egin da emakumeen egoera soziala, espazio publikoan sartzea lortu baitute, hezkuntza arautuaren guneetan, lan-merka-

**%63,85eko murrizketa**  
2013an Nafarroan, gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzeko jardueren aurrekontua kopuru horretan murriztu zen eta genero-ikuspegiarenez arpenak atzera egin zuten.

tuan eta ordezkaritza politikoa".

Altsasuko Udaletik gaztigatu dutenez, "gizonak, baina, ez dira proportzio berean sartu ardurakidetzaren eta zaintzaren esparru pribatuetara". Bestelako arazoak ere ez direla konpondu nabarmendu dute udaletik: "lan-segregazioa, kristalezko mugak eta soldata-arraillak; gainera, eskasak dira etxeko lanetarako eta bateragarritasunerako baliabideez hornitze-ko zerbitzu-politikak".



Emakumeak azokan. ARTXIBOA

&gt;&gt;



Ehizirikin lanean. ARTXIBOA

## Egitarau zabala Emakumeen Nazioarteko Egunaren kontura

Berdintasun politikak arriskuan, alerta morea leloa aukeratu du Altsasuko Udalaren Emakumeen Bilguneak Martxoaren 8ko programaziorako. Egitaraua atzo abiatuz, autodefentsa ikastaroekin. Dozena bat emakume ari dira parte hartzen. Etzi, Emakumeen Nazioarteko Eguna izanik, Altsasuko mugimendu feministak kontzentrazioa deitu du. Aldarrikapenak ospakizunari bide emanen dio ondoren.

**Epea luzatuta**

Martxoaren 14rako, goiz eta arratsalde, sentitu, pentsatu, ekin eta mugitu feminismoan tailerra iragarri dago. Eta hilaren 17 eta 18ko arratsaldeetarako, berriz, komunikazio ez sexista tailerra. Emakumearen Bilguneak antolatutako bi ikastaro horietan izena emateko epea astelehenera arte luzatu egin da. 948 564 823 telefonora hots egin behar da.

## Egitaraua

- >> **Martxoak 7, larunbata**  
**18:00etan** Autodefentsa: Errespetua lantzeko tailerra (lau saioetatik bigarrena).
- >> **Martxoak 8, igandea**  
**13:00etan** Eraiki dezagun bidea morea... gogoz! Kontzentrazioa udaletxe aurrean. Ondoren triki-poteoa.  
**18:00etan** Imanak, lore-arte eta gorputz mugimendu tailerrak, Intxostia-punta gazte gunean.  
**20:00etan** Emakumeak zinemara. Violette. Gonbidapenak ordubete lehenago.
- >> **Martxoak 11, asteazkena**  
**18:00etan** Literatura-hizketaldia: Txaro Berguären Dominique liburua. Iortia kultur gunean.
- >> **Martxoak 12, osteguna**  
**19:00etan** Berdintasuna kirolean? Zer eta nola? Hizlaria: Ainhoa Azurmendi. Iortia kultur gunean.
- >> **Martxoak 14, larunbata**  
**10:30etik 14:00etara eta 15:30etik 18:00etara** Sentitu, pentsatu, ekin eta mugitu feminismoan tailerra. Aurretik izena eman.
- >> **Martxoak 15, igandea**  
**12:00etan** II. Lilasterketa.
- >> **Martxoak 17 eta 18, asteartea eta asteazkena**  
**18:00etatik 20:00etara** Komunikazio ez sexista lantzeko tailerra. Izena eman.
- >> **Martxoak 21, larunbata**  
**20:00etan** Ovarios verdes fritos. Detritus teatro.





GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza [www.tanatoriosirache.com](http://www.tanatoriosirache.com)



**Alberto Lacalle Alzate**



Gaueko izar argitsuena gauza denen gainetik, haizea bezala.


**Zure lankideak**



**Alberto Lacalle Alzate**

Adiorik gabe, dantza dezagun azken balsa.

**Biltoki taberna**



**Gorka Larrea Ondarra**  
III. urteurrena

Gauza asko esan genitzake, baina ezin, sentitzen duguna askoz handiagoa delako. Lagunei eskerrak eman nahi dizkiegu.

**Ama, aita, Iker eta Erkuden**

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



**Bidali mezua zorion@guaixe.net-era edo hots egin 948 564 275 telefonora**



**Oroigarriak egiten ditugu**

**Nahi duzun argazki eta testuarekin**

**GUIAIXE KOMUNIKAZIOA**  
948 564 275  
Foru plaza 23-1 Altsasu  
[argi@guaixe.net](mailto:argi@guaixe.net)



GRUPO Funeraria **VASCONGADA** Ehorzketak  
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

24 ORDUZ: **943 106 222 • 943 376 980**

**guaixe.iragarkilaburrak.com**

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

**NORBANAKOEN IRAGARKIAK**  
Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€.  
Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.  
Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com-en](http://guaixe.iragarkilaburrak.com-en).

**HARREMANETARAKO**  
Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)

**Erosi / saldu**  
**SALDU**  
Telebista. 40 €-ren truke egoera onean dagoen telebista (Philips 37"). Tel 630 49 08 44.

**higiezinak**  
**ETXEBIZITZAK**  
ERRENTAN EMAN

**Bi solairutako etxe berriztatua alokatzen da**  
**Zuhatu inguruan.** Lursaila du. Tel. 948 500 101.

**Ikastaroak**  
**Olatzagutiko Erburua kiroldegian azken plazzak.** Pilates, indoor zirkloa, aerodance, mantentze soinketa eta yoga ikastaroetan azken plazzak bete zeko daude. Otsaila eta maiatza bitarteko ikastaroak. Informazio gehiago kiroldegian edo 948 56 45 12 telefonon.

**Lehiaketa**  
**Erromantzatua koloreak.** Nafarroako

ekialdeko eskualdeko pintura lehiaketa antolatuta da. Maiatzaren 25era arte aurkeztu daitezke lanak. Informazioa: [www.restauranteromanza-do.com](http://www.restauranteromanza-do.com)

**Oharrak**  
**Txaro Begueren liburuaren inguruan literatura hizketaldia.** Martxoaren 11n, asteazkenean, 18:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**Ekintzaileei bultzada.** Nafarroako Gobernuak sustatutako programa baten bidez zortzi enpresa proiektu aukeratu, bultzada programa batean sartu eta laguntza ekonomikoa emanen zaie. Eskerak martxoaren 10era arte. Informazioa: [www.cein.es](http://www.cein.es)

**Etxarriko irakurle taldea.** Alberto Ladronen "Arotzaren eskuak" liburuaz ariko dira martxoaren 12an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian.

**Olatziko irakurle taldea.** Martxoaren 27an, ostiralean, 21:00etan Sandor Marairen "La mujer

justa" liburuaz hizketatuko dira.

**Artisten auzoa.** Ekainaren 1ean, eta aste batez, Iruñeko kaleetan artisten lanak ikusgai izanen dira. El Barrio de los Artistas ekimenean parte hartu nahi duenak <https://someselbarriodelosartistas.wordpress.com> blogean bidez izen emate fitxa bete behar du. Apirilaren 27ra arteko epea dago.

**Axio.** Jose Ignacio Flores buruzko dokumentala egiteko diru-laguntza eman nahi duenak ES04 3035 0112 00 1121055951 kontu korrantean egin dezake. Informazio gehiago [www.axioflores.com](http://www.axioflores.com)

**Iruñeko euskarazko telebistaren alde.** Xaloa telebista Iruñerrian euskara hutsean emititzen hasteko 50.000 € behar ditu. Diru ekarpena non? [www.karena.eu/proiektua/xaloe-telebista-iruneri](http://www.karena.eu/proiektua/xaloe-telebista-iruneri) edo Iruñeko Karrikiri Euskal dendan (Xabier Karrika 4) eta Katakarak liburudendan (kale Nagusia 54).

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu, Cederna-Garalurrek honako

laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardura sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko.** Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpentak kontu korrantean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

**Tartalariendako laguntza.** Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrantean sartu daiteke.

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpentak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878,

**JAIOTZAK**  
• **Lur Anton Flores**, otsailaren 22an Altsasun.  
• **Odei Fuste Adan**, otsailaren 23an Altsasun.  
• **Ekain Zelaia Tabar**, otsailaren 26an Etxarri Aranatzen.

**HERIOTZAK**  
• **Alberto Lacalle Alzate**, otsailaren 28an Olaztin.  
• **Manuel Iglesias Soutullo**, otsailaren 28an Irurtzunen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

Rural Kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.



## SASKIBALOIA

**SAKANAKO SASKIBALOI TOPAKETEN 5. JARDUNALDIA IRURTZUNEN:** Igandean Irurtzongo kiroldegian. 11:00etan Irur-

tzungo Amuarrainak Altsasuko Oreinen kontra ariko dira eta 12:00etan Altsasuko Basurdeak Etxarriko Lehoien kontra.

## Txirrindularitza

## Rural Kutxaren lehen garaipena

Daniel Lopezek Zumaiaiko 7. Lasterketa irabazi zuen

Rural Kutxa talde sakandar amateur-rrak hasiera bikaina eman dio 2015 denboraldiari. Larunbatean elite eta 23 urtez azpikoek lasterketa jokatu zen Zumaian, Euskaldun Txapelketarako baliagarria. Proba esprintean erabaki zen eta Rural Kutxako Daniel Lopez izan zen azkarrena, Euskadi Fundazioako Jon Irisarriren aurretik. Bestetik, igandean hasi zen 23 urtez azpiko Lehendakari Txapelketa, Ereñon. Baque taldeko Julen Amezketa izan zen irabazlea. Bigarrena Rural Kutxako Jonathan Lastra izan zen, 30 segundora, eta hirugarrena talde bereko Iker Azkarate, 33 segundora.

## AZANZAREN LEHEN GARAI-PENA ZUZENDARI MODUAN

Jorge Azanzak zuzentzen duen Euskadi Fundazioan taldeko Egoitz Fernandezek Murtziako Costa Cálida Itzuliko bigarren etapa irabazi zuen. Jorge Azanzaren lehen garaipena izan zen, zuzendari moduan. "Tal-deak bikain lan egin du, eta garaipena sari ederra izan da" adierazi zuen altsasuarrak.

## JUNIORREK EGIN DIOTE

Juniorrek denboraldiari hasiera eman zioten, Villatuertan. Luyma Cycling Team taldeko Migel Angel Fernandez izan zen garailea (1:58:16). Quesos Albénizeko Eneko Aramendia 14.a izan zen, eta Intersport Irabiako Gorka Arbizu 16.a, biak 59 segundora.

## Duatloia

## Juan Luis Maiza ongi Mungian

Hossain Kaanachek irabazitako proban 33.a izan zen etxarriarra

Igandean 8. Mungiako Duatloia jokatu zen (5 km korrikan, 21 km txirrindulan eta 2,5 km korrikan). 245 duatletek hartu zuten parte eta Hossain Kaanache (59:33) eta Inmaculada Pereiro (1:12:38) izan ziren azkarrenak. Sakana Triatlói Taldeko Juan Luis Maiza 33.a izan zen (1:04:43), bere kategorian bigarrena. Asteburu honetan Eibar-ko eta Basauriko Duatloiak jokatuko dira.

## Atletismoa

## Izaskun Beunza Espainiako Kross Motzeko Txapelketan

Igandean Espainiako Kros Motzeko Txapelketa jokatu zen Caceresen. Bertan lehiatu zen Izaskun Beunza olaztiarra. Emakumezkoen proba luzean (7,5 km) aritu zen eta 72.a sailkatu zen (31:31).

## Pilota

## Bikain


Binakako sailkapena:

1.	Berasaluze II-Zubieta	9 puntu
2.	Ezkurdia-Zabaleta	8 puntu
3.	Irujo-Barriola	7 puntu
4.	Artola-Albisu	6 puntu
5.	Oinatz-Aretxabaleta	5 puntu
6.	Retegi Bi-Rezusta	4 puntu
7.	Olaizola II-Beroiz	3 puntu
8.	Xala-Merino II	2 puntu

**Asteburuko garaipenei esker, Berasaluzek eta Zubietak 9 puntu dituzte eta finalerdietan daude eta Ezkurdia eta Zabaleta, 8 punturekin, ia sailkatuta daude**

Jardunaldi ederra izan da asteburu honetako Binakako Txapelketan parte hartzen ari diren pilotari sakandarrendako. Hiru jardunaldi segidan galdu ondoren, Ezkurdia-Zabaletak 12-22 irabazi zieten Xala-Merineri, eta Berasaluze ordezkatzan zuten Elezkanok eta Zubietak 19-22 hartu zituzten menpean Oinatz Bengoetxea eta Alvaro Untoria. Finalerdietan sailkatu dira Berasaluze eta Zubieta, eta hanka ia bertan dute Ezkurdia eta Zabaletak.

Ostiralean, Donibane Garazin, Ezkurdia eta Zabaletak azken hiru asteetako porrotei buelta eman zioten eta euren zortzigarren garaipena lortu zuten Xala eta Merino 12 tantotan utzita. Sakandarrak partida hasieratik izan ziren nagusi, eta berehala hasi ziren aldea ateratzen. Xalak eta Merinok, gainera, akatsaskoegin zituzten. Zabaleta bikain egon zen



Ea gaur Zabaletak eta Ezkurdia finalerdietarako txartela lortzen duten.

eta bi dejada egiteko aukera ere izan zuen. Garaipen honekin, sakandarrak dagoeneko ia matematikoki sailkatuta daude finalerdietarako. Hurrengo 3 jardunaldietan partida bat irabaztearekin nahikoa dute.

Bestalde, Bilbon, partida erdialdera arte parez-pare aritu ziren Berasaluze ordezkatu zuten Danel Elezkanok eta Aitor Zubieta eta Oinatz Bengoetxea eta Alvaro Untoria. Atzeko koadroetan Aitor Zubietak ez zuen beste batzuetan bezala agindu, astean barna sukarrarekin bueltaka ibili baizen eta haren eraginengatik ez baitzegoen ohiko sasoiarekin. Untoriak ere ez zuen aurreko asteetako maila eman, eta, hortaz, partida aurreko koadroetan erabaki zen. 9-7 aurreratu ziren Bengoetxea eta Untoria, baina une horretan hasi

zen Elezkanoren erakustaldia. Bere ezker esku bikainari esker, partida hautsi zuen 1-11ko partzialari esker, eta 10-18 aurreratu ziren Elezkanok eta Zubieta. Oinatzek eta Untoriak erantzun zuten, baina azkenean, 19-22 irabazi zuten Elezkanok eta Zubietak. Horri esker, 9. puntua eta finalerdietarako sailkatzea lortu zuten.

## Zubieta kontentu

Aitor Zubieta kontentu zegoen partida bukaeran. "Orain bai, matematikoki barruan gaude eta oso pozik. Partida gogorra izan da, guk pilota astunak hartu genituen, mugitzeko zailak zirenak, eta horiekin ongi ibili gara. Egund txarrak pasatzetik nator; nahiko kaxkar, sukarrarekin bueltaka. Baina nahiz eta beste batzuetan bezain batez eman, lanean saiatu naiz, pilo-

## 12. jardunaldia

**Retegi Bi Rezusta - Ezkurdia-Zabaleta** (ostiralean, 22:00etan, Munitibarren. ETB1)

**Irujo-Barriola / Artola-Albisu** (larunbatean, 17:30ean, Gasteizen. LaSexta)

**Berasaluze II-Zubieta / Xala-Merino II** (larunbatean, 17:00etan, Iruñean)

**Urrutikoetxea-Beroiz / Oinatz-Aretxabaleta** (igandean, 17:00etan, Eibarren. ETB1)

ta kentzen. Eskerrak Danelek ikusgarri jokatu duela, erasoan eta defentsan ikaragarri aritu da. Pablok eta nik berari eskertu behar diogu puntu hau. Orain, lanean jarraitu eta ongi errekupeatzea da kontua, finalerdietara sasoitsu iristeko" adierazi zuen.

## Datorrena

Gaur Ezkurdia eta Zabaletak Retegi Bi eta Rezusta izanzen dituzte aurrerari Munitibarren. Sakandarrak finalerdietara sailkatzeko 9. garaipena lortu nahiko dute, baina Retegi Bi eta Rezusta irabaztetik datoz eta lehian jarraitzeko asmoa dute, irabaztera aterako dira. Eta dagoeneko sailkatuta dauden Berasaluze IIak eta Zubietak, soilik bi puntu dituzten Xala eta Merino II.a izango dituzte aurrerari bihar. Xalak eta Merinok joko ona eman nahiko dute, eta horregatik areio arriskutsuak izango dira lanak eginak dituzten Berasaluze eta Zubietarendako.

## Herri kirolak

## Nafarroako Herri Kirol Jokoak Altsasun abiatu ziren

**Inoiz baino talde gehiago lehiatuko dira aurtan. Talde sakandarrak ongi aritu ziren lehen jardunaldian**

Igandean abiatu ziren, Altsasun, Nafarroako Kirol Jokoak. Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako herri kirol txapelketa hau, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuarekin batera. 3 kategorietako neska-mutikoez hartzen dute parte: kimuek (11-12 urte), haurrek (13-14 urte) eta kadeteek (15-16 urte). Lau jardunaldi jokatuko ondoren -Altsasun, Berroetan, Berriozarren eta Igantzin-, martxoaren 29an finala jokatuko da, Arbizun edo Etxarri Aranatzan.

## Altsasun hezetan ondo-riak izan zituen

Igandean lehen jardunaldia jokatu zen Altsasuko Burunda pilotalekuan. Kimuen proba konbinatua 4 multzotan banatuta aritu



Nafarroako Herri Kirol Jokoen gora egin dute, aurtan inoiz baino talde gehiagok eman baitute izena. Jakina, tartean talde sakandarrak daude. Zehazki, Etxarri Aranatzko Andra Mari ikastolatik sortutako Andra Mari, Ondatz, Beriain, Leziza eta Putterri taldeak eta Altsasuko Iñigo Aritza ikastolatik sortutako Iñigo Aritza taldeak.

ziren eta Etxarriko Andra Mari izan zen onena. Atzetik sailkatu ziren Araxes, Irisarri, Iñigo Aritza C, Ondatz, Baztan, Beriain, Basaburua, Iñigo Aritza B, Berriozar A,

Berriozar B, Iñigo Aritza A, Artzane eta Berriozar C. Haur mailako proba konbinatua bi multzotan banatuta aritu ziren. Araxes izan zen azkarrena, Basaburua,

Andra Mari, Berriozar, Irisarri, Iñigo Aritza, Leziza eta Ultzama taldeen aurretik. Eta kadeteen proba konbinatua ere Araxes izan zen talderik finena, Ultzama, Iñigo Aritza, Berriozar, Andra Mari eta Basaburua taldeen gainetik. Baina aipatzekoa da izugarriko hezetasuna sortu zela frontoian. Lurra oso irristakorra eta arriskutsua zegoen. Horregatik, antolakuntzak erabaki zuen lehen jardunaldiko denborak kontuan ez hartzea finalera sailkatzeko orduan.

Sokatiran haurren mailan (480 kilo), A multzoan Berriozar izan zen garailea (3 puntu), Iñigo Aritza (1,5 puntu) eta Leziza (1,5 puntu) taldeen aurretik, eta B multzoan Andra Mari nagusitu zitzaizen (3 puntu) Putterri (2 puntu) eta Ultzamari (puntu 1). Kadete mailan (540 kilo), aldiz, Berriozar izan zen onena (5 puntu), Ultzama (4 puntu), Iñigo Aritza (3 puntu), Araxes (2 puntu) eta Andra Mari (puntu 1) taldeen aurretik.

Nafarroako Herri Kirol Jokoen bigarren jardunaldia igandean jokatuko da Berroetako plazan, 11:00etatik aurrera.



Atletismoa

# 31 sakandar Lilatoian

Sakandarrak 31. Lilatoian

23.	Haizea Ramirez de Alda (Alts)	21:23
37.	Mari Gwen Davies (Urd)	22:03
70.	Ginesa Lopez (Alts)	23:35
155.	Isabel Pozueta (Alts)	25:14
232.	Belen Mendoza (Alts)	27:30
439.	Maixabel L. de Uralde (Arb)	28:08
440.	Nuria Pozueta (Alts)	28:08
812.	Lara Aldaz (Olaz)	30:28
1429.	Maria Angeles Duran (Olaz)	32:39
1439.	Mari Jose Lopez (Olaz)	32:42
1517.	Amaia Aristu (Olaz)	32:55
1598.	Ana Rosa Ganuza (Olaz)	33:12
1758.	Olatz Gomez (Alts)	33:36
1768.	Nagore Gallego (Alts)	33:37
1945.	Cristina Ocariz (Arb)	33:58
2188.	Ainhoa Urbe (Arb)	34:32
2243.	Maitte Agirre (Urd)	34:42
2310.	Maria Pilar Jimenez (Olaz)	34:53
2603.	Izaskun Agirre (Olaz)	35:40
2604.	Aiora Barandiaran (Arb)	35:40
2837.	Jaione Astiz (Arak)	36:27
2839.	Nerea Berastegi (Arb)	36:28
2845.	Jaione Mendinueta (Arb)	36:28
2847.	Nagore Arruti (Arb)	36:28
2852.	Cristina Fernandez (Arb)	36:29
2866.	Itziar Razkin (Arb)	36:32
3046.	Oihane Etxeberria (Arb)	37:22
3262.	Uxua Andueza (Lak)	38:07
3263.	Saioa Lakuntza (Arb)	38:07
3269.	Aizaga Zeberio (Arb)	38:09
3538.	Miren Mendinueta (Arb)	40:17

**Helmugara iritsi ziren 3.714 emakume korrikalarien artean 31 sakandarrak izan ziren. Haizea Ramirez de Alda 23.a iritsi zen helmugara**

Igandean jokatu zen 26. Lilaton lasterketa, Donostian. Lasterketa hau martxoaren 8aren inguruan antolatzen da eta kirolean emakumearen presentzia aldarrikatu nahi du, besteak beste. Aurten Atletico San Sebastian taldeak antolatu zuen proba, Lilaton Taldeari lekukoa hartuz. Aldarrikapena eta festa batzen dira Lilatoian. Beste behin, emakumeen lasterketa honek errekorrak apurtu zituen. 3.714 korrikalarik osatu zuten 5 km-ko lasterketa, Aiora Jaka donostiarra buru zela (18:52). Tartean 31 sakandarrek osatu zuten proba, eta Haizea Ramirez de Alda altsasuarra izan zen azkarrena, helmugara 23.a iritsita (21:23).

Hurrena, Altsasuko II. Lilasterketa



Martxoaren 15ean jokatu da Altsasuko II. Lilasterketa, emakumeendako lasterketa parte-hartzaile ez lehiakorra (4 km). Izena ematea zabalik dago [www.dantzalekusakana.com](http://www.dantzalekusakana.com) web gunean edo Emakumeen Bilgunean (948 564 823), dohainik.

**Patinetan ere**

Lilaton lasterketarekin batera, 7. Lilaroler proba jokatu zen, hauda, emakumezkoen patin lasterketa.

100 irristalari ingururen artean Nagore Montes izan zen azkarrena (11:30). Maitte Gorospe olaztiarra 28.a sailkatu zen (16:25).

Areto futbola

## Magnak hiru puntuei eustea lortu zuen

3 goleko errenta izan ondoren, Levante sustoa emateko zorian egon zen

Magna Nafarroa Xotak sufritutako garaipena lortu zuen sailkapenean azken aurreko postuan dagoen Levantaren kontra. Imanol Arregiren mutilek ongi jokatu zuten, presionatuz eta gol aukerak sortuz. Horrela, Jesulito, Pablo Obarr eta Tolrà jokalariei golei esker, atsedenaldira 3-0 irabaziz joan ziren irurtzundarrak. Baina bigarren zatian erlaxatu egin zen Magna eta Levante sustoa emateko zorian egon zen. Xotako jokalaria ez zeuden eroso eta Levantek hirura berdintzea lortu zuen. Orduan Magnak egoerari buelta ematea lortu zuen eta 38. minutuan Carlitosek garaipenaren gola sartu zuen. Levantek beste gol aukera argi batzuk izan zituen, baina, zorionez, baloia ez zen Magnaren atera sartu eta garaipenarekin despeditu zen lehia. "Taldea urduri jarri da bigarren zatian eta gogortuta, ataskatuta jokatu dute. Hala ere, irabaztea lortu dugu eta 3 puntu oso garrantzitsu lortzea, play-offetarako sailkatu ahal izateko. Ea lanean jarraitu eta ostiralean, Zaragozan, akatsak zuzentzen ditugun" adierazi zuen Imanol Arregi entrenatzaileak partida bukaeran.

Hurrengo arerioa DLink Zaragoza Inter Movistar da liderra (63 puntu). Magna Nafarroa Xotak 7. postuari eusten dio, 40 punturekin. Ostiralean Zaragozan jokatu du Irurtzongo taldeak, 26 punturekin 12.a den DLink Zaragoza taldearen kontra.

Mendi lasterketak

# Sakandarrek gogor ekin diote denboraldiari

Sakandarrak VII. Zuzenien Igoera Bertikalean (3,3 km):

1.	Iñigo Lariz	34:05
10.	Aritz Munarriz	36:38
36.	Mikel Rubio	40:18
55.	Fidel Jimenez	42:28
68.	Aritz Ganboa	43:22
92.	Mikel Iriarte	45:50
101.	Fran Araña	46:32
167.	Carlos Pascual	57:21

Sakandarrak I. Galar Mendi Lasterketan (18 km):

1.	Xabier Zarranz	1:31:37
17.	Mikel Satrustegi	1:45:52
90.	Aitor Salinas	2:05:22

Sakandarrak V. Orioko Mendi Lasterketan (20 km):

1.	Aritz Egea	1:40:59
16.	Gorka Santesteban	1:56:29
26.	Joxeja Maiza	1:59:37
184.	Julen Arratibel	2:36:02
331.	Erkuden San Martin	3:06:02

**Aritz Munarriz 10.a izan zen Zuzenien Igoera Bertikalean, Mikel Satrustegi 17.a I. Galar Mendi Lasterketan, Gorka Santesteban 16.a Orioko Mendi Lasterketan eta Nordin Jdi Babak lau ordu t'erditan osatu zuen Orreaga-Iruñea traila (43 km)**

Hasi da mendi lasterketen denboraldia eta asteburu honetan gure mendi korrikalariak makina bat lasterketetan aritu dira, eta primerako lana egiten, gainera.

**Bikain**

Igandean VII. Zuzenien Igoera Bertikala jokatu zen Azpeitian, 3,3 kilometroko eta 825 metroko desnibeletako proba gogorra, Izarraitz helburu zuena. 180 korrikalarien artean Iñigo Lariz izan zen azkarrena (34:05). 7 sakandar aritu



Sakana Birizik taldeko kide batzuk Zuzenien Km Bertikala despeditu ondoren.

ziren eta azkarrena Aritz Munarriz etxarriarra izan zen, helmugara 10.a helduta (36:38).

Igandean, bestalde, ia 200 korrikalarik hartu zuten parte Subitzan lehendabizikoz antolatutako I. Galar Mendi Lasterketan (18 km). Xabier Zarranzek irabazi zuen proba (1:31:37). Bi sakandar lehiatu ziren eta Mikel Satrustegi arruazurrak lan bikaina egin zuen, 17.a iritsi baitzen helmugara (1:45:52).

Igandean antolatutako V. Orioko Mendi Lasterketak (20 km) erantzun bikaina izan zuen baita ere. 379 korrikalari iritsi ziren helmugara, Aritz Egea buru zela (1:40:59). Lau sakandar aritu ziren eta azkarrena Gorka Santesteban izan zen (1:56:29). Etxarrendarra 16. postuan sartu zen helmugan.

**Orreaga-Iruñea**



Intersport Irabia Trail taldeak mendiko korrikalarien topaketa bat antolatu zuen igandean. 8:00ak pasata elurtuta zegoen Orreaga-abiaturaren 40 korrikalari, eta gehienak 12:30-13:00ak bitartean iritsi ziren Iruñera (43 km). Tartean zegoen Nordin Jdi Baba. Lakuntzarrak lau ordu t'erdian behar izan zituen.

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

23. JARDUNALDIA

**BAZTAN 3 - LAGUN ARTEA 2**  
LAGUN ARTEA 0 - GARES 0 (atzeratutakoa)  
Larunbatean Baztanen kontra aritu zuen Lagun Artea. Davilak eta Unanuak 0-2 aurreratu zuten Lagun, baina bigarren zatian Baztanen erantzuna iritsi zen eta Lizarzairen eta Urrutiaren golengatik 3-2 galduta itzuli ziren lakuntzarrak. Asteartean atzeratutako partida jokatu zuten Lagunek eta Garesak. Lehen zatian ez zen apenas jokaldi aipagarriarik egon, eta bigarrenaren Garesak agindu zuen. Zorionez, ez zuten Lagunen atean asmatu eta puntu banaketarekin despeditu zen lehia.

Sailkapena >>

1.	Mendi	49 p
13.	Lagun Artea	23 p

Asteburuko jardunaldia

**LAGUN ARTEA - MUTILBERA B**  
(Igandean, 16:30ean, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

23. JARDUNALDIA

**ETXARRI ARANATZ 3- BURLADES 2**  
**ALTSASU 0 - ARROTXAPEA 3**  
Urrestarazuk Etxarri aurreratu zuen berehala. Bigarren zatian Burladesek penaltz berdindu zuen, eta Etxarriko Xabat kaleratu eta berehala iritsi zen Burladesen bigarren gola. Gainera, Alain kaleratu eta gero, 9 jokalarirekin gelditu zuen Etxarri. Baina liderrak egoerari buelta eman eta Pablok eta Urkiak sartutako golei esker 3-2 gailendu zen. Altsasuk, aldiz, 0-3 galduta zuten Arrotxapea bigarrenaren kontra. Berehala dominatzen hasi ziren Iruñekoak. 13. minuturako lehen gola sartu zuten. Altsasu saiatu zuen, baina ezin. Bigarren zatian Arrotxapearen bigarren gola heldu zuen eta horrek Altsasu jota utzi zuen. Partida bukatzean zegoela hirugarren gola sartu zuen Arrotxapeak.

Sailkapena >>

1.	Etxarri Aranatz	53 p
8.	Altsasu	32 p

Asteburuko jardunaldia

**ULTZAMA - ETXARRI ARANATZ**  
(Igandean, 11:30ean, Berriozarren)  
**DONEZTEBE - ALTSASU**  
(Larunbatean, 17:00etan, Donezteben)

Areto futbola

## Final laurdenak jokoan Futsalsakana txapelketan

14. jardunaldiko emaitzak:

Bunker 6 - Hijos de perla 3  
Arbizu harrobia 2 - Arbizu K.T. 2  
Iturmendi 3 - Auzomotojorik 8  
Racing San Migel 7 - Back Street Boys 4

Atzeratutakoak:

Racing San Migel 5 - Iturmendi 8  
Back Street Boys 8 - Racing San Migel 7  
Hijos de perla 2 - Bunker 12

Futsalsakana Txapelketako hasierako ligaxka bukatuta, Bunker izan da liderra (36 puntu), Racing San Migel 2.a (26 puntu) eta Arbizu 3.a (26 puntu). Auzomotojorik 4.a da (19 puntu), Hijos de perla 5.a (16 puntu), Back Street Boys 6.a (16 puntu), Arbizu harrobia 7.a (14 puntu) eta Iturmendi 8.a (10 puntu). Asteburuan final laurdenak hasiko dira.

Final laurdenak

**Ostiralean:**

**20:00etan:** Bunker - Iturmendi  
**21:00etan:** Racing San Migel - Arbizu harrobia  
**Larunbatean:**  
**17:00etan:** Auzomotojorik - Hijos de perla  
**18:00etan:** Arbizu K.T. - Back Street Boys



## Duatloia

Altsasuko  
Duatloirako izena  
ematea zabalik

Martxoaren 21ean jokatu da. 11:00etan kategoria txikikoak eta 16:00etan proba nagusia

Sakana Triatloi Taldeak antolatuta, martxoaren 21ean jokatu da VI. Altsasuko Duatloia. Goizeko 11:00etan Nafar Kirol Jolasetako probak jokatu dira, kategoria txikikoak, eta 16:00etan proba nagusia. Proba nagusian hasieran duatletak 5 km egin beharko dituzte korrikan, gero txirrindula hartu eta 22 km bizikletan aritzeko. Bukatzeko, 2,5 kilometroko korrikaldia egingen dute.

Proban parte hartzeko izena ematea zabalik dago, [www.navarratriatlon.com](http://www.navarratriatlon.com) web orrian. Kategoria txikietarako ez da ordaindu beharko, baina proba nagusirako, federatuek 22 euro ordaindu beharko dituzte, eta federatu gabekoek 26 euro.

## Kiroldegia

Kirolean sexuen  
berdintasunaz  
solasean

Ainhoa Azurmendi kirol aholkulariaren hitzaldia martxoaren 12an, 19:00etan, Iortian

Emakumearen egunaren ildora Altsasun antolatutako ekitaldien barruan, kirolean berdintasuna ematen ote den aztertuko du Ainhoa Azurmendik. Berdintasuna kirolean? Zer eta nola? izenburuekin eskainiko du hitzaldia, martxoaren 12an, ostegunarekin, 19:00etan, Altsasuko Iortia Kultur Gunean. Emakumeen Bilguneak antolatu du hitzaldia. Ainhoa Azurmendi psikologoa eta kirol aholkularia da eta hainbat ikerketa egin ditu kirolean ematen diren genero ezberdintasunen inguruan. Kirol alorrean berdintasuna errealitate bihurtzeko, erakundeek apustu sendoago batekin behar dute lausteko du Azurmendik, eta bere arabera, eskola kirolek hasi behar da lanketa. Horretaz gain, Azurmendi emakumeen kirolaren inguruan erakundeek eta hedabideek duten jokatibidearekin kritikoa da. "Onartezina da esatea emakumeen kirolak ez duela saltzen" adierazi zuen asteazkenean Berria egunkarian.

## Irristaketa

## Irristaketa errege Olaztin

Nafarroako 9 irristaketa taldeetako 300 irristalarik parte hartu zuten Olaztin jokatu zuten Nafarroako Abiadura Irristaketa Txapelketako Indoor probetako 4. topaketan

Olaztin Erburua kiroldegia txiki geratu zen larunbatean. Nafarroako Abiadura Irristaketa Txapelketako Indoor probetako 4. topaketa jokatu zen Olaztin, eta jardunaldi arrakastatsua izan zen oso. Nafarroako 9 irristaketa taldeek parte hartu zuten proban, 5 urtetik 24 urte arteko 300 irristalarik. Tartean zeuden, jakina, Sakana Irristaketa Taldeko neska-mutikoak.

Irristalariak lan bikaina egin zuten. Sakana Irristaketa Taldeko entrenatzaile Juli Acebesek onartu duenez, Sakana taldeko irristalariak kontentua eta emozioz gainezka zeuden etxean ari zirelako, eta urduri ere bai. Guztia kontuan hartuta, balorazio polita egin du entrenatzaileak.



Sakana Irristaketa Taldeko irristalariak eta Juli Acebes entrenatzaileak talde argazkia atera zuten Olaztin.

Acebesek azaldu duenez, ez da erraza halako tamainako ekitaldia antolatzea. "Hala eta guztiz ere, guztia primeran atera zen. Sakana Irristaketa Taldeko kideek eta

gurasoek lan bikaina egin zuten guztia ongi ateratzeko eta, horregatik, antolakuntzari zorionik beroenak eman behar zaizkio" nabarmendu zuen. Bere aldetik,

Sakana Irristaketa Taldeko juntatik eskerririk beroenak eman nahi dizkiete irristaketa topaketa antolatzen lagundu dieten pertsona eta entitate guztiak.

## Atletismoa

Morenok eta Beunzak altxatu dute  
Sakanako Atletismo Kopa

Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak txapelketaren sari ematea asteazkenean izan zen, Etxarri Aranazko Lasa Kirolak dendan

Sakanan atletismoa sustatu eta Sakanako lasterketetan korrikalari sakandarren parte-hartzea sustatzeko helburuarekin sortu zuen Sakanako Atletismo Kopa Sakanako Mankomunitateak. Hasieratik Lasa Kirolak dendaren babesa izan du ekimenak.

## Saritutakoak

2014an lau probak puntuatzen zuten Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sarirako: I. Ziordiko Herri Krosak (ekainak 1), XI. Aitzkozar Herri Krosak (ekainak 14), XI. Ergoienako Birak (irailak 20), XIV. Sakanako Herri Lasterketak (urriak 25) eta Altsasuko Barricarteren Oroimenezko Oinezko Lasterketak (abenduak 8). Bertan aritu ziren korrikalari sakandarren lana aintzat hartu-

## Sari ematea asteazkenean Etxarriko Lasa Kirolak dendan



Irabazleek 80 euro jaso zituzten kirol materialean, bigarrenek 60 euro eta hirugarrenek 40 euro. Horretaz gain, Kopako lasterketa guztietan parte hartu zuten korrikalarien artean -Izaskun Beunza, Maite Zabaleta, Javier Moreno, Iban Gonzalez eta Juanxo Azurmendi- Lizarragako Bertan bi pertsonendako gau bat eta gosaria zozketatu ziren. Izaskun Beunzari egokitu zitzaion saria. Giro ederrean, txapelketako antolatzaile, babesle eta saritutakoek Leku-Ederren jarraitu zuten ospakizuna. Aurten ere jarraipena izango du Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Kopak.

ta, Sakanako Kopako irabazleak Javier Moreno Jorge altsasuarra eta Izaskun Beunza Azazeta olaztiarra izan dira. Gizonezkoetan,

Morenoren atzetik Francisco Javier "Pitxi" Gomez Fernandez eta Sergio Garcia de Eulate Maia altsasuarra sailkatu dira, eta

emakumezkoetan, Beunzaren atzetik, Maite Zabaleta etxarriarra eta Haizea Ramirez de Alda altsasuarra.

**ZORROZTU  
ZURE  
ETORKIZUNA**

Goierri Eskolak **Ate Irekien Jardunaldira** gonbidatzen zaitu.  
Ezagutu ezazu **Batxilergoko** gure eskaintza.

**Martxoak 14, larunbata, 10:30ean**

[www.zorroztuzureetorkizuna.com](http://www.zorroztuzureetorkizuna.com)

Zeure begiz ikus ezazu.  Klik batekin informa zaituzte.



Arranomendia, 2 • ORDIZIA • 943 880 062



# Haize Berriak banda mezenas bila

**Bandaren orain arteko egitasmo handiena aurrera eramateko herritarren eta enpresen babesaren bila ari da. Emailek trukean hainbat abantaila izanen dituzte**

Sakanako musika bandak urtero kuota ordaintzen duten bazkideak ditu eta igandean haiei zuzendutako entsegu berezia antolatu zuen. Bandako kide Josu Rubiok esan digunez, “nola lan egiten dugun erakutsi eta gure eta bazkideen artean harreman estuagoa izateko antolatu genuen. Entsegu irekia gauza berria denez, gustuko litzaiekeela pentsatu genuen”.

Iortiarra bertaratu ziren guztiek bandak nola lan egiten duen ezagutzeko aukera izan zuten. Baita Joseba Salegi zinema zuzendaria ere. Izan ere, Salegik igandean despeditu zuen bandarekin egiten duen *Zatoz, Agur* film laburra. Aurten Haize Berriak banda galzak bete lan ibiltzearen arrazoietako bat filmaketa hori izan da, DVDan argitaratuko dutena. Beste bat udaberriaren grabatzeko



Mezenas		
Mezenasaren ekarpena	Itzulketa errenta aitorpenean	Bandaren oparia
50 euro	40 euro	CD
100 euro	80 euro	CD+DVD
150 euro	120 euro	CD+DVD+sarrera
+150 euro	%40ko itzulketa	
Enpresak	300 euro arte	%30eko itzulketa
	+300 euro	%20ko itzulketa

asmoa duten diskoa da. Eta, azkena, maiatzaren 2an Enrike Zelaia omentzeko Burunda pilotalekuan antolatu duten ikuskizuna. Azken horretaz, Rubiok aurreratu digu “jende asko etorriko da, akordeoi eta txistu arloan kategoriako artistak”. Sorpresak ere iragarri ditu.

## Mezenas premia

Rubiok aitortu digunez, “gauza xume eta txikia zena bandaren orain arteko egitasmo handiengan bihurtu da; bai aurrekontu aldetik bai pertsonen implikazio aldetik ere. Horrek dirutza suposatzen du”. Eta aurrekontu handi hori estaltzeko Haize Berriak

bandak Nafarroako Mezenasgo Legea baliatzea erabaki du. Nafarroako Gobernuak emandako onura fiskalak eta bandaren opariak jasoko dituzte mezenek. Horren berri eman zien bandak igandeko entsegu irekian izan ziren guztiei.

Euren kabuz eskaera-orriak betetzen moldatzen ez direnei erraztasunak emateko, dirua bandak Caixan duen kontu korrantearen sartzeko eskatu die. Kontzeptuaren atalean izenarekin batera telefonoa eman eta hala bandako kideak mezenasarekin harremanetan jarriko lirake, errenta aitorpeneko itzulketa paperak betetzeko datuak ere eskatuko dizkiote.

## Orai taldearen bisita berria

Gaur, 23:00etan, Altsasuko Arkangoa tabernan

Aurreko larunbatean Iortia kultur gunean Juan Ramirez bai-laorea lagundu ondoren, Orai musika talde iruindarra, gaur, atzera ere Altsasun ariko da. Flamenko eta mestizai doinuak Arkangoa tabernan emanen dituzte Javier Vazquezek (pianoa), Pedro Planillok (gitarra), Rafael Borjak (gitarra), Jolis Muñozek (ahotsa) eta Keko Galindok (perkusioa).



## DJ Makalaren dantza doinuak

Larunbatean, 23:00etan, Etxarri Aranazko Derry tabernan

Mikel Unzurrunzaga Schmitz edo DJ Makalak ilbeltzean argitaratu zuen Global Funk Remixes 2004-2014 diskoa aurkeztuko du bihar Etxarrin. Aurretik disko bat eta bere taldearekin, Makala Jazz Funk Band, bi EP argitaratuak ditu. Makalak denetarikoinu bero eta tropikalekin sortzen du musika. Hala, jazz, swing, soul, funk, disko, afro, Brazil, latin, boogaloo, cumbia, gypsy rhumba edo ska doinuak egungo eritmo berritzaile eta elektronikoen nahastetan ditu.



## Erromeria Maisuenean

Larunbatean, 24:00etan, Olatzagutiko gaztetxean

Emakumeen Nazioarteko Eguna eridoinua jarriko dio bihar gauean Trikitizio taldeak. Lauko zegamarak dantzarako eritmoak Olatzagutiko gaztetxean emanen ditu, folk, rock eta ska aireak nahasiz.



## bazterretik

Jose Luis Asensio

### Kondairak II: Kultura eta tradizioak

Japoniako kulturaren, ohikoak dira mamuak, izpirituak eta jainkoak. Eta honen adierazgarri bezala ikus ditzakegu beldurrezko gaiak lantzen dituzten liburu, komiki eta pelikula mordoa.

Tradizio ugari ditu eta bere historian zehar garatutako zenbait gertaera edo sineskeratan jatorria izan ohi dute. Hona hemen, laburpen txiki bat:

**1.- Tanabata:** Aspaldian, Orihime printzesak ehun zoragarriak ehuntzen zituen Zeruko Errege zen bere aitarentzat. Baina ez zuen denborarik gizon bat ezagutu eta ezkontzeko eta bere aitak, Hikoboshi artzaina aurkeztu zion. Guztiz maitemindu ziren. Maitasunak itsutu-



ta, denbora gehiena batera iragaten zuten eta arreta gutxiago jartzen zion Orihime-kehuntzeari, eta Hikoboshi-ren animaliak ere galduta zeuden zeruan. Horregatik, aita haserretu eta Amanogawa errekararen bazter ezberdinetan banatu zituen, betirako. Alabak, negarrez, azkeneko aldiz bere gizona ikusteko eskatu zion aitari, eta aitak,

hunkituta, bere lana bukatu ondoren, urtean behin Hikoboshi ikusiko zuela zin egin zion.

Uztailaren 7an ospatzen da Japonian. Paper luzeetan bertso forma duten eskaerak, gurak eta nahiak idatzi egiten dira eta banbu zuhaitzetan eskegi. Batzuetan, errekatara ere jaurti egiten dira edo gauean paperei su eman zerura joateko. Japoniako familia batekin ospatzen behin, Tokion, eta beti irribarre eginez gogoratzen dut tradizio hau.

**2.- O-bon:** 500 urte inguru beste-rik ez dituen tradizioa da, baina, hala ere, japoniarrendako garrantzitsuenetarikoa da gaur egun! Esan ohi da, beste mundu batean dauden hildakoak egun batzuk beraien familia eta lagunekin igarotzera etortzen direla gure mundura. Ospaki-



zun hau oso hedatua dago eta hilerri eta etxe gehienetan ospatzen da. Baina ez pentsa tristuraz edo beldurrez ospatzen dutenik, topaketa alai eta positiboa da. Familia eta lagunak ikusi, dantza egin, jan, edan eta elkarrekin egoteko aprobetxatzen dute, bizi eta hildakoak, denak batera. Tokion uztailan ospatzen da, baina beste toki batzuetan antzinako ilargi-egutegia jarraituz data alda-

tu daiteke. Ospakizunetako egun bakoitzak esanahi berezia dauka eta gauza ezberdinak egiten dira, hala nola, jaki bereziak, linternak gauean, prozesioak...

**3.- Hitobashira:** Azkeneko tradizio honek, kondaira ilunagoa du oinarri. Itzulpena “giza zutabeak” izan liteke, eta jatorria oso antzinakoa dugu. Garai hartan, gizakiak sakrifikatu behar zirela uste zen, eraikuntza bat sendo eta betirako babestuta egon zedin. Sakrifizioak egiteko, gizakiak bizirik lurperatzen ziren zutabeen barruan. Jainkoek eskaintza onartzekotan, eraikuntzak belaualdi ugari zutik iraungo zuen eta hildako gizajoaren mamua, betirako geratuko zen espetxeratu pareten artean. Zorionez, gaurko arkitektoek ez dute horrelakorik egiten.



# Clown baten amatasunari eta edertasunari buruzko hausnarketak

**Lorena Arangoa gaur, 22:30ean**  
Altsasuko gaztebixean amatasunaren inguruan ariko da eta edertasunaren inguruan bihar, 22:30ean, Irurtzungo Iratxo elkartearen

**H**aurdun ezkontzera doan emakume baten papera jokatu du gaur gauean Lorena Arangoa Clownak. *Haurrak bizitzaren opari dira... ala ez? Bat nahi?* izenburuko emanaldian amatasunari eta haurren zaintzari buruzko iritziak partekatzen dira. Clown irurtzundarrak bi esketetan antolatu du ikuskizuna, eta tartean bideo bat emanen du.



Bihar, berriz, etxean ariko da Arangoa. Emakumeen Nazioarteko Egunaren kontura antolatu den afariaren ondoren Iratxo elkartearen ariko da Clowna. Itziar Matxainekin batera prestatzen ari den *Beti bezala* ikuskizun berria emanen du. Clownak San Valentín egunerako bere burua prestatu nahiko du eta, horretarako, Interneteko bideo tutorialetara joko du. Emakumeek besteendako eder, makilatu, depilatu... etengabe jasotzen dituzten mezu horien inguruko clown-hausnarketa da biharkoa.

# Mundua mugiarazten duten lan ikusezinez

**Larunbatean, 20:00etan, Olatzagutiko kultur etxean**

**M**erkatuan ez dagoena ez da ekonomia zati eta, beraz, ez da ez kontuan hartzen, ez ikusten ezta baloratzen ere. Gizateriak berak segitzeko baita sistema kapitalista mantendu eta birsortu dadin ere, ezinbestekoak eta beharrezkoak dira estaltzen zaizkigun lan horiek. Tradizionalki emakumeek egiten dituzten lanak eta haien artean transmititzen direnak; denbora, ahalegina, ezagutza, energiak, estrategiak, dedikazioa eta beste eskatzen dituzten eta kontuan har-

tzen ez diren lanak.

Bi emakumeren bizitza aurkeztuko zaigu taula gainean. Biek, atsedenek gabe, euren mundua marrazten ari dira, itzalean guztiaz eta guztiez arduratuz, isilkamisolka mundua eraikiz. Lanaldiaren ondoren, babeslekuan, nekalbaldarratuta, euren desioen desertuan sartuko dira. Bizimodu batera kateatuta. Bata besteari kateatuta. Transzendentziarik gabeko rol batera kateatuta. Aldeak alde, pareko direla aitortuko dute. Kateak apurtzeko prest egonen diren, beste kontu bat da.

Plataforma Tirante eta Keli taldeak sortutako *DesEncadenArte*

## Fitxa

**Zuzendariak:** Estibaliz Villa eta Jose Ibn.

**Aktoreak:** Gilda Pizarro eta Estibaliz Villa.

obra emakumeen eta haiek egiten duten lanen ikusezintasunari buruz hitz egiteko saiakera bat da. Antzerkiaren bidez publikoa hausnarketa kolektibora gonbidatu nahi du. Tailer-dinamika moduko bat sortuko da eta ikusleek protagonisten bizitzaz hitz egin eta eztabaidatzeko aukera izanen dute. Baita antzezpene nola bukatu nahi



duten erabaki ere, obrak ez baitu bukaerarik.



# Euskal dantzen ikuskizuna

**Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean**

**A**ltsasuko Musika eta Dantza Eskolan Iñaki Agirre Larraza irakaslearekin ikasten ari diren ikasleak izanen dira dantza jaialdiko protagonistak. Bost

urtetatik dantzari helduak arte, 90 bat dantzari pasako dira eszenatokitik. Zortzi taldetan banatuta, bakoitzak bizpahiru dantza eskainiko ditu. Iortiar gerturazten den dantza-zaleak Euskal Herri guztiko dantzekin gozatze-ko aukera izanen du.

# Zirika Zirkusendako aipamena Xixonen

**P**asa den astean, otsailaren 22 eta 27 artean, Xixon Feten azokaren egoitza izan zen, atzera ere. Haurrendako arte eszenikoen ikuskizun mordo bat programatu ziren. Irañetan egoitza duen Zirika Zirkus taldeak *Txarlestrop* ikuskizunaren hiru emanaldi egin zituen (astelehenean, asteartean eta ostegunean). Eguraldiak ez zuen Feten azoka lagundu eta kale ikuskizun

guztiak ezin izan ziren eman. Hala ere, Zirika Zirkus taldea epaimahaiaren aipamen batekin bueltatu da Irañetara.

## Ikuskizunaz

Zirika Zirkus-ek 2012ko maiatzaren 19an mustu zuen *Txarlestrop* ikuskizuna, Irañetan. Ikuskizunaren musikak, txarlestonak, aparatuko garrantzia du. Hala ere, lau



antzezleak hainbat diziplinatan aritzen dira emanaldian: dantza, akrobaziak, clown antzerki teknika eta musika.

**BIKAIN GARAJEA, S.A.L.**  
948 460 037 Arbizu  
948 468 441 Altsasu

**Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA**

**Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea**



## Nonerabili

### JAVIER AUTOESKOLA

#### IRURTZUN

% 10eko deskontua matrakulan.

### PATXI GALARZA

#### IRURTZUN

% 5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100 €rengatik txistorra opari.

### JM AGIRRE HARATEGIA

#### LAKUNTZA

50 €ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

### DANTZALEKU TABERNA

#### ALTSASU

Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan.

### KAXETA

#### ETXARRI ARANATZ

% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

### KATE INFORMATIKA

#### IRURTZUN

% 5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan.

### KALUXA TABERNA

#### URDIAIN

Menu edo plater konbinaturarekin kafea edo txupittoa doan, menu bereziarekin kafea edo kopa doan.

### CITROËN SAN MIGUEL

#### ALTSASU

Total oliotetan % 30eko deskontua. Pneumatikoen aldaketetan % 20 deskontua.

### IRUBIDE JATETXEA

#### ALTSASU

Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50€.

### SAKANA OPTIKA

#### ALTSASU

% 15eko deskontua graduatutako betaurreko osoetan (montura+lenteak). % 10eko deskontua beste edozein artikulutan eta ikusmenaren errebisioa doan.

www.guaixe.net-en zerrrenda osoa ikusgai





## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 5%	euria: 5%	euria: 7%	euria: 100%	euria: 13%	euria: 18%	euria: 38%
Min: 0 Max: 13	Min: 1 Max: 19	Min: 2 Max: 16	Min: 2 Max: 14	Min: 3 Max: 14	Min: 4 Max: 13	Min: 4 Max: 12

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	18.5	3.5	62.8
Etxarri A.	17.7	1.8	85.2
Altsasu	16.5	1.5	59.6
Aralar	8.6	-2.7	89.9
Urbasa	14.5	0.5	61.9

: ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
13	20	27	4

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Otsaileko

bazkide sarituak

- 1.- **Maria Saez de Albeniz**  
(Etxarri Aranatz)
- 2.- **Jose Ignazio Lazkoz Lekuona**  
(Etxarri Aranatz)
- 3.- **Maite San Roman Goikoetxea**  
(Urdiain)
- 4.- **Cristina Flores Jaka**  
(Arbizu)

MARSUKO SARIAK:

1. SARIA: Ekainberri museorako 2 sarrera. Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Irrien lagunak aldizkaria.

2.3.4.SARIAK: Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturaleren lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Irrien lagunak aldizkaria.

# >> 11

## galdera

Jose Luis Mariñelarena

Setem GKE-ko kidea

Testua: Maialen Huarte Arano



# etxean goxogoxo egoteko irakur ezazu

martxoaren 13an eraikuntza+etxebitza gehigarria

**1. Zer da Setem?**  
Aldaketa soziala lortzea helburu duen Gobernuz Kanpoko Erakunde bat da. Horretarako ohiko kontsumoa aldatzea jo behar da, norberaren jarrera eta joera aldaketatik abiatu eta gizartearen kontzientzian eragitea da helburua. Norbanakoaren aldaketak lortuko du kolektiboarena. Setemek, kontsumo bidezkoago bat lortzeaz gainera, arloaskolantzen ditu. Txilera egin nuen bidaia ikasten ari nintzela, Elkartasunerako Ekimen batekin, 1997. urtean. Gero boluntario aritu nintzen eta 2004. urtetik lanean ari naiz Setemen.

**2. Setemen lana zabala da beraz?**  
Bai oso. Bidezko merkataritza da agian ezagunena, salerosketa arduratsua egiteko kanpainak asko direlako. Denda fisikoa dugu Iruñean, bertan produktu sorta dugu bidezko merkataritzaren bidetik eta kateringak, meriendak eta gosariak ere prestatzen ditugu. Zenbait taberna eta jatetxetara ere bideratzen ditugu halako produktuak.

**3. Bidezko merkataritza aipatu duzu. Zertan datza?**  
Iparraldeko herrialdeen eta Hegoaldekoen errespetua lortzea bilatzen du kontsumo arekiko. Finean, elikagaien burujabetza da lortu behar dena. Produktua lantzen duenaren duintasuna, ingurumenarena, lan baldintzeta, erlazio demokratiko batean oinarrituta egotearena, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunean oinarritzearena, haurrik ez jartzea lanean eta kontsumitzaileari produktu edo zerbitzu horren inguruko informazio guztia ematea dira irizpide etako batzuk.

**4. Kanpainek ba al dute eraginik?**  
Publizitate bidez eta azoka askotan parte hartuz iritsi gara jendearengana. Enpresa handiek eta multinazionalak prezioekin nola lehiatzen duten ikusarazten dugu, zein den horren kostua. Askotan haurrak, eskulaboak, lan baldintzarik gabeko jardunaldi luzeak... izaten dira produktu eta zerbitzuak merke saltzearen zergatietako batzuk. Horrez gain, duela zenbait urte ikastetxe hainbatekin ere lanean ari gara, irakasleek ikasleekin gaia landu dezaten, material didaktikoa ere badugu.

**5. Zein kanpainarekin lortu duzue harridura gehien sortzea?**  
*Arropa garbia* izenekoarekin. Europako 15 herrialdetan egin dugu. Arropa denda handien eta multinazionalen egoerak salatu ditugu. Langileek zein lan baldintzak dituzten. Bangladeshen 1.134 emakumezko hil ziren arropa egiten ari zirela egoitzak su hartu zuelako. Salaketak izandako oihartzunarengatik zenbait enpresari egingakoa ordaintzera behartu zaie.

**6. Ekimen berri bat al duzue eskuartean?**  
Arropa egiten eta lantzen dutenen sektorearekin egin eta lortu genuena zapatagintzan eskuratu nahi dugu orain. Mundu mailako egitasmoa da eta ni neu izanen naiz koordinatzailea. Xedea zapatak egiteko erabiltzen diren hainbat produkturen arriskuaz ohartaraztea da. Bereziki kromo izeneko metala erabiltzen dute eta ingurumeneko eta pertsonen osasunerako zinez kaltegarria da. *Alda itzazu zure zapatak* izenarekin ekinen diogu kanpainari.

**7. Jendea kontsumo arduratsua z kontzientzia hartzen ari da?**  
Krisiarengatik gero eta gehiago jotzen da produktu merkeak erostera, gehiegi kontuan hartu gabe horien kalitatean. Baina egia da, jende asko dagoela kontzientzia-tua. Badakiela bidezko merkataritzako produktuak nondik datozen eta nola dauden eginak, nahiz eta batzuetan gehiago ordaindu behar den. Lan asko dago egiteko.

**8. Zer egin dezakegu merkataritza bidezkoago baten alde?**  
Askok. Erabaki guztietan egin daiteke aurrera pausoa. Zein energia kontsumitzen dugun, zein zapata erosten ditugun, zein jantzi jartzen dugun, zein kafe hartzen dugun, zein mugikorra dugun ... denak balio dezake aldaketa horretan.

**9. Kafea eta kakaoa dira ohikoak bidezko merkataritzan. Baina produktu sorta zabala duzue.**  
Kafea, kakaoa, azukrea, marmelada, pasta, tea, infusioak, eskuz egindako apaingarriak, kosmetika, haurrentzako jostailuak... denetik.

**10. Sakanan zenbait saltokik eskaintzen dituzte halakoak?**  
Altsasun eta Irurtzunen urte askoz izan dira zenbait saltoki halakoak eskaintzen dituztenak. Kontsumo taldeak ere badirela badakit, eta gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ere bai.

**11. Kontsumo arduratsua baten alde zein bide egin daiteke?**  
Jendearen parte hartzea ezinbestekoa da. Setem-en parte hartu nahi duen edonor ongi etorria izanen da (948275720, www.setem.org/nafarroa, nafarroa@setem.org).